

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 FORU  
DEKRETUA, abenduaren 16koa. Honen bidez, Bizkaiko  
Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi  
Orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko Foru  
Arauaren testu bategina garatzen duena  
(BAO Abenduaren 23koa)**

**HITZAURREA**

2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Araua da Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoaren ekonomia-finantza eta aurrekontu-jarduera arautzen duen erreferentziako dokumentu juridikoa.

Hala ere, arau horrek aldaketa batzuk izan ditu argitaratu zenetik hona, eta aldaketa horiek, oro har, aurrekontuei buruzko urte bakoitzean egindako foru-arauetan sartu izan dira.

2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina onartu zen, eta, hala, 5/2006 Foru Arauren jatorrizko testua eguneratu eta hark izandako aldaketa guztiak sartu ahal izan ziren. Foru Dekretu Arauemaile hori berretsi egin zuten Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2014ko urtarrilaren 29an balio osoz egindako Batzar Nagusian hartutako erabakiaren bitartez.

Aldatuz doaz legeriaren xedapen orokorrak, azken aldian izandako legegintzako jarduera handiaren ondorioz; bada, horrenbestez, xedapenok aplikatzeak ekarri behar du garapenerako arautegiak bete egin behar dituela gure lurraldeko foru-sektore publikoaren ekonomia- eta aurrekontu-jarduna.

Arautegiaren aplikazio praktikoak zenbait kontzeptu eta prozesu zehaztu, argitu eta garatzeko beharra eragin du. Eta, arau-garapen horren ondorioz, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortu gura da foru-sektore publikoaren kudeaketak dituen arlo guztietan: aurrekontuaren ingurukoa, ekonomiko-finantzarioa, kontablea, fiskalizazioarena eta finantza-kontrolarena.

Bestalde, araudi honi erantsita doan agiriak bildu eta ordezkatu egin nahi du kasuan-kasuan onetsitako hainbat foru-dekretu eta -aginduren bidez kudeaketa horretako zenbait kasu arautzen zituen Foru Aldundiaren arautegia.

Araudi hau, hortaz, dokumentu dinamikoa izan behar da, eguneratzeko modukoa, eta egokitu egin behar da foru-erakundeen jardunaren arauketari eragin diezaioketen legegintzako aldaketetara. Hori dela eta, beharrezkoa den kasuetan, eta araudiaren artikulua osatzearen, jardunbideak zehazteko beharrezkoak diren administrazio-prozedurak garatuko dira, jardunbideok ahalik eta denbora laburrenean ere egokitu ahal daitezten.

Dekretu honi erantsitako araudiak 153 artikulua ditu, titulutan antolatuta, zeinak bat egiten baitute Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategineko tituluekin.

Lehenengo titulua 6 kapitulutan garatzen du testu bategineko bigarren titulua, eta haietan zehaztasunez lantzen dira Lurraldeko Aurrekontu Orokorrek prestatzeko printzipioak eta arauak. Aurrekontu-kredituak eta haien aldaketak definitzen dira. Halaber ezartzen dira aurrekontuak kudeatu, betearazi eta likidatzeko irizpideak eta merkataritzako foru-sozietateen eta foru-fundazioen aurrekontuen eta finantzako egoera-orrien kudeaketa eta aldaketari buruzko zenbait alderdi argitzen dira.

Titulua amaitzeko, Batzar Nagusiei aldian-aldian eman beharrezko informazioa zehazten da.

Bigarren tituluak kontabilitate informazioaren edukia garatzen du, eta, bereziki, Kontu Orokorrari buruzkoa.

Hirugarren titulua bat dator testu bategineko laugarren titulua, eta bertan arautzen da foru-sektore publikoaren finantza-araubidea. Finantza-planaren egitura garatzen da, eta ordainketa agintzeko irizpideak ezarri.

Izan ere, titulu honetan definitzen dira sektore publiko administratiboaren nahiz enpresa-sektore publikoaren zorpetze-eragiketak, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiak emandako abalen ondoriozkoak ere.

Azkenik, laugarren tituluak Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategineko bosgarren titulua garatzen du, foru-sektore publikoaren jardura ekonomiko eta finantzarioaren gaineko kontrolari buruzkoa.

Titulu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako fidantzak onartu, erregistratu eta zaintzeko eragiketek fiskalizatuak izan ahal izateko bete behar dituzten baldintzez gainera, kontrol ekonomikoko eta auditoretzako eragiketak jasotzen dira.

Kontrol ekonomikoko eragiketak egitearen helburua da ebaluatzea zer eragin duten -ekonomikoa, finantzarioa zein aurrekontuaren gainekoa- araudian bertan zehazten diren arau-xedapenek.

Bestalde, auditoretzako prozeduren bidez eginiko kontrolari dagokionez, kontrol horren hedadura eta aplikazio-eremua zehazten dira. Urteko auditoretza-planaren eta finantza-kontrolaren edukia garatzen dira, bai eta auditoretza-txostenak nola egin eta txosten horien egitura eta edukia ere.

Hori guztiori dela bide, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2014ko abenduaren 16ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra: Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onestea, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da, zeinak Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina (5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zena) garatzen baitu; araudi orokor hori eranskin moduan gehitzen zaio foru-dekretu honi.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

### **Bakarra.**

Araudi hau indarrean jartzean, indargabeturik geratuko dira araudi honetan xedatutakoaren aurka dauden edo harekiko kontraesana sortzen duten xedapen guztiak, maila berekoak zein beheragokoak, eta, bereziki, hauek:

- 93/2009 Foru Dekretua, ekainaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorraren gutxieneko edukia arautzen duena,
- 226/2007 Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, foru sektore publikoaren ekonomia eta finantza jardura auditoria prozeduren bidez nola kontrolatu arautzen duena,
- 105/2001 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiak eta beraren erakunde autonomoek hitzarmenak egiteko eta laguntza nahiz diru-laguntza publikoak emateko gastua fiskalizatzeko araudia onetsi duena,

- 53/1998 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Kontratazioko Gastuaren Fiskalizazioari buruzko Araudia onetsi duena,
- 2003ko urriaren 28ko 200/2003, 201/2003 eta 202/2003 foru dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiko organoek, zenbatekoa dela-eta, desjabetze-espeditenteak onartzeko, diru-laguntzak eta laguntzak emateko eta kontratuak egilesteko dituzten eskumen-mugak ezartzen dituztenak, hurrenez hurren,
- 53/1994 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean emandako fidantzen onarpen, erregistro eta zaintza baldintzak araupetzen dituena,
- 455/2011 Foru Agindua, apirilaren 15eko, zeinaren bidez sailei zergetatik ez datozkien diru-sarrerak kudeatzeko prozedura arautzen den.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa. Gaikuntza.**

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, araudi honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

### **Bigarrena. Indarrean jartzea.**

Foru dekretu hau 2015eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

## **ERANSKINA.**

### **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO AURREKONTUEI BURUZKO ARAUDI OROKORRA, ZEINAK AURREKONTUEI BURUZKO FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA (5/2013 FORU DEKRETU ARAUEMAILEAREN BIDEZ ONARTU ZENA) GARATZEN BAITU**

#### **I. TITULUA.**

### **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN AURREKONTU OROKORRAK (AFATBEKO II. TITULUA GARATZEN DU)**

#### **I. KAPITULUA.**

### **PRINTZPIO OROKORRAK ETA AURREKONTU-PROGRAMAZIOA (AFATBEKO II. TITULUKO I. KAPITULUA GARATZEN DU)**

#### **1.artikulua. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak prestatzeko printzipioak eta arauak.**

Aurrekontu-programaziorako ezarritako printzipioak betetzearren, Aurrekontu Orokorrak prestatzerakoan printzipio hauek hartuko beharko dira kontuan:

- a) aurrekontu orokorrek errespetatu egin beharko dituzte urte anitzeko aurrekontu-egoera eta Foru Aldundiak ekitaldi bakoitzerako onesten dituen ildoak, sarrerei buruzko zenbatespenen eta sailen proposamenen kalterik gabe,
- b) bermatu beharko da, batetik, estaldura nahikoa ematen zaiela ezarritako lehentasunei eta, bestetik, aurrekontua finantzatzen dela, aurrekontu-egonkortasuneko esparruaren barruan,
- c) Aldundiko sailek ebaluatu behar dute zer eragin duten beren jarduketek emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, gazteriarri dagokionez eta Foru Aldundiak komenigarritzat hartutako beste edozein gairi dagokionez. Horretarako beharrezkoa da programa bakoitzeko helburuen lorpen maila modu egokian neurtzea, xede horretarako adierazle egokiak erabiliz,

- d) merkataritzako foru-sozietateek eta foru-fundazioek, haiei agintzen zaien kudeaketa egiterakoan, bete egin behar dute Lurralde Historikoaren ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan gehieneko zorpetzea dela-eta ezarritako helburua.

## **2. artikulua. Urte anitzeko aurrekontu-egoera prestatzea.**

1. Urte anitzeko aurrekontu-egoera Ogasun eta Finantza Sailak prestatuko du.
2. Urte anitzeko aurrekontu-egoera aurrekontu-kontabilitatearen eran formulatuko da eta bateratua izango da foru-sektore publiko administratibo guztiarentzat.
3. Hura prestatzerakoan, sarreren egoera kategoría organiko eta ekonomikoen arabera sailkatuko da, eta gastuena, berriz, kategoría ekonomiko, organiko eta funtzionalen nahiz proiektuen arabera.
4. Urte anitzeko aurrekontu-egoera prestatzeko, honako hauen zenbatespena hartuko du oinarri Ogasun eta Finantza Sailak:
  - a) itunpeko tributuen bilketa eta tributuon ondoriozko konpromiso instituzionalen kuantifikazioa,
  - b) kofinantzatutako proiektuak eta haien sarrera- eta gastu-fluxuak,
  - c) Europako funtsetatik datozen sarrerak,
  - d) gainerako sarrerak,
  - e) plantillaren eta pertsonal-gastuen bilakaera, datuak sexuen arabera xehatuta,
  - f) zor bizia eta finantza-karga,
  - g) proiektu instituzional handiak,
  - h) sail bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontua.

Aurreko zenbakian aipatutakoak ebaluatzeko eskumena Ogasun eta Finantza Sailari dagokio, e) letrakoena izan ezik, halakoak ebaluatzeko eskumena Lehendakaritza Sailari baitagokio Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan. Bestalde, foru-erakunde autonomoen kasuan, haiek egingo dute beren plantillaren eta pertsonal-gastuen bilakaeraren estimazioa, datuak sexuen arabera xehatuta.

5. Ogasun eta Finantza Sailak modu egokian zenbatetsi ahal ditzan b), c), d), g) eta h) letretan zehaztutakoak, sail horrek honako informazio hau eskatutako die Aldundiko sail eta foru-erakunde autonomo guztiei, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru-agindu baten bidez zehaztutako modu eta epeetan: urte anitzeko programei buruz beharrezkoa den informazioa, konprometituzat jotzen diren gastuen zenbatekoak eta egokitzat jotzen diren beste edozein gairi buruzko informazioa.

## **3. artikulua. Urte anitzeko programak eta urte anitzeko aurrekontu-egoeretan konprometitutako gastuak.**

1. Urte anitzeko programetan sartuko dira bai dagoeneko onartuta dauden konpromiso-kredituak bai urte anitzeko kredituak, hots, urte anitzeko aurrekontu-egoeran gauzatuko direla aurreikusten direnak, baldin eta kredituon izaeragatik edo eskumen-eremuagatik aurre egin behar bazaie halako kredituei.
2. Honako ezaugarri hauetakoren bat betetzen dutenak joko dira gastu konprometituzat:
  - duten jarduera-eremua dela-eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoak direnak,

- nahitaez egin beharreko gastuak direnak, indarrean dagoen arau-xedapen baten ondorioz (xedapen horren maila edozein dela ere), edo Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako kontratu edo hitzarmenen ondorioz,
- duten izaeragatik nahitaez egin beharrekoak direnak foru-sektore administratiboaren oinarritzako funtzionamendurako. Argia, gasa, telefonoa edo alokairuak dira izaera hori duten gastuetako batzuk.

Kasu guztietan, zerbitzu publikoa ematen dela edo zerbitzu publikoa hornitzen dela bermatuko duen gutxieneko atalase bat gorde behar da.

3. Ogasun eta Finantza Sailak berrikusi eta onartuko du, hala badagokio, aurreko zenbakian ezarritako baldintzak bete ez arren gastuok kudeatzen dituen sailaren edo erakunde autonomoaren iritziz gastu konprometituzat jotzen diren gastuen kalifikazioa, baldin eta kalifikazio hori oinarritzeko arrazoiak ematen badituzte.
4. Urte anitzeko programa edo gastu konprometitu bezala sartzen ez diren kredituak xedapen libreko gastutzat joko dira.

Halakotzat joko dira, halaber, zerbitzu publikoa ematen dela edo zerbitzu publikoa hornitzen dela bermatuko duen gutxieneko atalasea gaingiditzen duten zenbatekoak.

#### **4. artikulua. Urte anitzeko aurrekontu-egoera onartzea.**

Urte anitzeko aurrekontu-egoera Bizkaiko Foru Aldundiak onartuko du, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta, uztailako lehenengo egunaren aurretik.

## **II. KAPITULUA.**

### **EDUKIA ETA ONARPENEA (AFATBEKO II. TITULUKO II. KAPITULUA GARATZEN DU)**

#### **LEHENENGO ATALA.**

### **AURREKONTUEN EGITURA (AFATBEKO II. TITULUKO II. KAPITULUKO II. ATALA GARATZEN DU).**

#### **5. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiaren sarreraren aurrekontuaren egitura..**

Sarreraren egoera-orrietan sartzen diren baliabideak irizpide hauen arabera sailkatuko dira:

- a) kategoria ekonomikoak: sarrerak beren izaera ekonomikoaren arabera antolatuko dira, kapitulu, artikulua, talde, kontzeptu eta azpikontzeptuka,
- b) unitate organikoak: beren izaera ekonomikoaren arabera sailkatu diren sarrerok haiek kudeatzen dituen organoari egotziko zaizkio, une bakoitzean indarrean dagoen sailkapen organikoa aintzat hartuta.

#### **6. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiaren gastuen aurrekontuaren egitura.**

Gastuen aurrekontuaren egitura honako lau ikuspegi hauen arabera antolatuko da:

- a) unitate organikoen araberrako sailkapena. Kredituak egozterakoan hauek aipatu behar dira:
  - foru-sailak, aurrekontu-ataletan banatuta,
- b) programen araberrako sailkapena, eginkizun, azpieginkizun, programa talde eta programatan banatuta,
- c) kategoria ekonomikoen araberrako sailkapena. Kredituak, beren izaera ekonomikoaren arabera, kapitulu, artikulua, kontzeptu eta azpikontzeptuka antolatuko dira, edozein dela ere

Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak ekitaldi bakoitzean zehazten duen lotura-gradua,

- d) gastu-proiektuak. Kredituak gastu-proiektu mota bakoitzari egozteko, 8. artikuluan azaltzen diren irizpideak jarraitu behar dira.

#### **7. artikulua. Programen arabera sailkapenari aplikatu beharreko erregelak.**

1. Sailkapena irekia izango da programari dagokionez; beraz, foru-organo bakoitzak egoki irizten dien aldaketak proposatu beharko ditu.
2. Lortu nahi diren helburuen arabera esleitu zaizkie finantza-baliabideak programei, eta aurrekontuen arloan arduraduna den zuzendariak horretarako analisia eta hautaketa egin beharko du, beharrezko duen dokumentazioa oinarri hartuta.
3. Programa bakoitza zehazten duten helburuak eta ekintzak adierazle banaren bidez kuantifikatu behar dira. Pertsonen buruzko adierazleak sexuen arabera xehatuko dira.
4. Lortutako helburuen eta gauzatutako ekintzen arteko konparazioak, erabilitako baliabide ekonomikoaren inguruko analisiarekin batera, modua emango du programa bakoitzak lortutako eraginkortasun eta efizientzia maila aztertzeko.

#### **8. artikulua. Gastu-proiektuak.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontua egiterakoan, kredituak proiektu tipologia hauetako baten bati esleitu zaizkio:

- a) pertsonal-gastuen proiektuak: I. kapituluko kredituetarako erabiliko dira, sailkapen ekonomikoaren arabera,
- b) gastu espezifikoaren proiektuak: nortasun propioa duten proiektuak dira, programa bateko kreditu bat edo gehiago, hainbat programatako eta/edo sail bateko edo gehiagoko kredituak elkartu ditzaketenak,
- c) gastu generikoen proiektuak: beren ezaugarri eta helburuagatik gastu espezifikoaren proiektu bati esleitu ezin zaizkion aurrekontu-kredituak bilduko dituzte,
- d) gastu iragankorreko proiektuak: proiektuon aurrekontuetan jasotako kredituak ezin dira zuzenean proiektuon aurka gauzatu. Izan ere, proiektu espezifikoaren bidez gauzatuko dira, eta kreditua aurrekontu-aldaketarik ez dakarren kontabilitateko mugimendu baten bidez transferituko da, betiere bere lotura-taldearen barruan egiten bada.

#### **9. artikulua. Gastuen aurrekontu-partidaren elementuak.**

Aurreko 6. artikuluan adierazten diren ikuspegiak aintzat hartuta, gastuen aurrekontu-partida elementu hauek definituko dute:

ZENTRO KUDEATZAILEA/PROGRAMA/EKONOMIKOA/EKITALDIA/GASTU-PROIEKTUA.

#### **10. artikulua. Foru-erakunde autonomoen aurrekontu orokorren egitura.**

Foru-erakunde autonomoen aurrekontuen egiturak Foru Aldundiaren aurrekontuek dituzten irizpide berberak bete behar ditu.

Era berean, aurreko 6., 7., 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko zaie aurrekontuoi.

**BIGARREN ATALA.**  
**AURREKONTUAK EGIN ETA ONESTE (AFATBEKO II. TITULUKO . II. KAPITULUKO III.**  
**ATALA GARATZEN DU).**

**11. artikulua. Ildo ekonomikoak.**

Sail bakoitza eta foru-erakunde autonomo bakoitza onartuta dagoen urte anitzeko aurrekontu-egoeran hurrengo ekitaldirako behin-behinean zehaztutako aurrekontu erabilgarriari egokitu dakion, aurrekontuen arloan eskuduna den zuzendariak aurrekontuaren berri emango dio sail bakoitzari eta foru-erakunde autonomo bakoitzari.

**12. artikulua. Ildo teknikoak.**

Bizkaiko Foru Aldundiak, urtero, aurrekontua egiteko ildo teknikoak onartuko ditu, eta gutxienez eduki hau izango du:

- a) jarduketan kronograma,
- b) aurrekontua egiteko irizpide espezifikoak,
- c) eguneratze-indizeak,
- d) aurrekontua egiteko eskatzen den dokumentazioa,
- e) generoaren eraginaren aurreiazko ebaluazioari buruzko txostena egiteko eskatzen den dokumentazioa,
- f) aurrekontuaren bertsioen identifikazioa,
- g) aurrekontua grabatzea errazteko ereduak,
- h) lantaldeak: helburuak eta parte-hartzaileak,
- i) Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak ondo egiteko Ogasun eta Finantza Sailak gehitu beharrekotzat jotzen duen beste edozein gai.

**13. artikulua. Aurrekontua egiteko irizpideak.**

Ildo teknikoetan adierazitakoez gainera erregela hauek hartu behar dira kontuan:

**1. Gastu-proiektuak aurrekontua jasotzerakoan irizpide hauek hartu behar dira kontuan:**

- a) jardueri gastu espezifikoko proiektu moduan eman behar zaie alta, baldin eta haien kredituak halakotzat jotzen baditu Ogasun eta Finantza Sailak, urte askotarako izateagatik, zenbatekoagatik edo helmuga kualitatiboagatik. Edozelan ere, gastu espezifikoko proiektuek aurrekontuaren beste ikuspegi bat eman behar dute, gainerako sailkapenek ematen dutena ez bezalakoa.
- b) urte anitzeko gastu-espeditanteetan oinarritzen diren aurrekontu-kredituak edo halako espeditanteetan oinarrituko direla aurreikusten direnak proiektu espezifiko bati esleitu behar zaizkio. Proiektu bakarrari emango zaio alta, nahiz eta proiektu hori ekonomiko, funtzional edo zentro kudeatzaile batek baino gehiagok finantzatu.

Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuak aurreko manua ez betetzeko salbuespena erabaki dezake, aurrekontu-kudeaketaren eraginkortasunak hala egitea gomendatzen badu.

Obra- edo hornidura-kontratuen zerbitzu-kontratu osagarriari obra edo hornidura horren proiektu espezifiko moduan eman behar zaie alta, nahiz eta obra-hornidurok aurrekontuan jasota egon ez.

- c) urte anitzekoak ez diren kredituak dituzten jarduketei ere proiektu espezifiko moduan eman behar zaie alta, baldin eta kredituok urte guztietan badaude konprometituta, haien zenbatekoa gorabehera,
  - d) kontsignazio izendun bakoitzeko, proiektu espezifiko bati eman behar zaio alta,
  - e) merkataritzako foru-sozietate, foru-fundazio edo foru enpresa-erakunde publiko bakoitzeko edo Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza duen erakunde bakoitzeko, proiektu espezifiko bati eman behar zaio alta, haien zenbatekoa gorabehera. Proiektua, oro har, bakarria izango da erakunde bakoitzerako,
  - f) zabalgarri moduan definitutako partidak proiektu espezifiko batekoak izan behar dira. Eta proiektu horren parte diren partidak ere zabalgarriak izan beharko dira,
  - g) gastu espezifikoaren proiektuetan jasota ez dauden jarduketak gastu generikoen proiektuari esleituko zaizkio,
  - h) gastu iragankorreko proiektua bakarria izango da ekitaldi bakoitzerako eta gastu hori dela-eta aurrekontuan jasotzen den kredituak gastu-beharrizan bati erantzun behar dio, eta gastu-beharrizan horrek aurretik ere badauden proiektu espezifikoak izan ditzake edota aurrekontuan jasotako ekitaldi horretan alta emango zaien proiektu espezifikoak.
2. Aurrekontu-partiden aurrekontuko zuzkiduran hauek bereizi behar dira, 3. artikuluan ezarritako irizpideen arabera bereizi ere: urte anitzeko gastuak, gastu konprometituek eta xedapen libreko gastuak.

#### **14. artikulua. Foru-sektore publiko administratiboak bidali beharreko dokumentazioa.**

Aldundiko sailek honako dokumentazio hau bidali behar diote Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari, bai sailei euri buruz bai haien menpeko foru-erakunde autonomo bakoitzari buruz:

- a) urte anitzeko programak,
- b) sail bakoitzeko foru-diputatu titularrak onetsitako diru-laguntzen plan estrategikoak,
- c) sailkapen organikoa, ekonomikoa eta funtzional-programatikoa aldatzeko proposamenak, egoki irizten bazaio halako aldaketak egiteari. Justifikatu egin behar da zer arrazoi dauden aldaketarako proposamena egiteko,
- d) aurrekontuari lotutako edukia duten proposamenak, baldin eta egoki irizten bazaio halakoak Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren aurreproiektuko artikuluetan sartzeari. Justifikatu behar da zer arrazoi dauden proposamena egiteko, eta kuantifikatu behar da - hala badagokio- zer eragin izango lukeen aurrekontuan sartu beharreko sarrera eta gastuetan,
- e) diru-laguntza izendun bakoitzeko txosten bana, non egiaztatu behar den zertarako erabiliko den laguntza, zer arrazoi dauden diru-laguntza horren interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzeko eta non justifikatu behar den lortu nahi diren helburuok jadesteko ezin dela deialdi publikoren bat erabili,
- f) indarrean dagoen araudiaren arabera eska daitekeen beste edozein dokumentazio edo Ogasun eta Finantza Sailean aurrekontuen arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiak berriaz eskatzen duen beste edozein dokumentazio.

#### **15. artikulua. Enpresa-sektore publiko foralrak bidali beharreko dokumentazioa.**

Foru enpresa-erakunde publikoek, merkataritzako foru-sozietateek eta foru-fundazioek, haiek atxikita dauden foru-sailen bidez, honako dokumentazio hau bidali behar diote Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari:



- a) aurrekontuan jasotako ekitaldiko ustiapen-aurrekontua eta kapital-aurrekontua,
- b) indarrean dagoen ekitaldiko pertsonal plantillari buruzko datuak, sexuen arabera bereizita, datuon itxierari buruzko aurreikuspena eta aurrekontuan jasotako ekitaldirako aurreikuspena,
- c) ibilgetuko bajen eta haien amortizazio metatuari buruzko deskripzio zehatza; besterentzeen kasuan, ekitaldi honetako bajengatik jasotako zenbatekoaren eta izandako mozkin edo galeraren deskripzio zehatza, bai eta aurrekontuan jasotako ekitaldiko aurreikuspenaren deskripzio zehatza ere,
- d) finantzako egoera-orri hauek, ekitaldi honen nahiz aurrekontuan jasotako ekitaldiaren itxierako aurreikuspenari buruzkoak:
  - balantzea,
  - galera-irabazien kontua eta, fundazio foralen kasuan, emaitzen kontua,
  - ondare garbian gertatu diren aldaketen egoera-orria, foru-fundazioen kasuan izan ezik,
  - eskudiruaren fluxuen egoera-orria,
- e) jarduketa, inbertsio eta finantzaketaren programa, non atal hauek sartu behar diren:
  - erakundearen jardueraren deskripzioa,
  - iraganean lortu nahi izan izan diren helburuak eta helburuok betetzeari dagokionez izandako bilakaera,
  - lortu nahi diren helburu orokorrak; azken horiek zenbatetsita agertu behar dira eta justifikatu behar da zer aukera eta asmo dagoen helburuak lortzeari dagokionez,
  - halakorik badago, hainbat urtetarako inbertsio-programak eta haien finantza-planak,
- f) etorkizuneko konpromisoak: aurreikuspenen arabera aurrekontu-ekitaldiaren amaieran hartuko diren baina aribideko ekitaldiaren itxieran sortu gabe egongo diren inbertsio eta gastu ez-aldizkakoak jasoko ditu,
- g) indarrean dagoen araudiaren arabera eska daitekeen beste edozein dokumentazio edo Ogasun eta Finantza Sailean arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiak berariaz eskatzen duen beste edozein dokumentazio.

### **III. KAPITULUA.**

#### **AURREKONTU-KREDITUAK ETA HAIEN ALDAKETAK (AFATBEKO II. TITULUKO III. KAPITULUA GARATZEN DU)**

#### **LEHENENGO ATALA.**

#### **AURREKONTU-KREDITUAK (AFATBEKO II. TITULUKO III. KAPITULUKO I. ATALA GARATZEN DU)**

#### **16. artikulua. Kredituen lotura.**

1. Ordainketa-kredituek, oro har, programa eta kontzeptu mailako lotura izango dute.
2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, ordainketa-kredituek honako lotura maila espezifiko hau izango dute:
  - a) I. kapituluko gastuei dagozkien ordainketa-kredituek kapitulu mailako lotura izango dute,

- b) kapitulu eta programa mailako lotura izango dute bai II., III. eta IX. kapituluetan sartutako ordainketa-kredituek, bai eta Estatuaren kupoa, Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko ekarpena eta itunpeko tributuen bilketan duten parte-hartzea dela-eta Lurralde Historikoko udalerriei egin beharreko ekarpena ordaintzeko kontsignatutako zenbatekoek ere,
  - c) VI. kapitulan sartuta dauden ordainketa-kredituek artikulua eta programa mailako lotura izango dute,
  - d) kreditu zabalgarriek, kreditu gehigarriek, foru-sektore publikoko erakundeei egindako transferentziek, izendun esleipenek eta ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan berariaz zehazten diren beste partidek haiek onesterakoan izandako desagregazio mailarekin izango dute lotura,
  - e) ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan berezitat jotzen diren kredituek lotura espezifiko ezberdina izango dute, arau horretan zehazten den mailarekin.
3. Partida berrien gaikuntzaren ondoriozko kredituek aurreko 1. eta 2. zenbakietan zehazten den lotura izango dute.

#### **17. artikulua. Kreditu zabalgarriak.**

- 1. Kredituei kreditu zabalgarri kalifikazioa emango zaie baldin eta, hasieran mugatzaileak izan arren, gerora haien zenbatekoa gehitzea badago, ezartzen diren formalitateak bete ondoren, eta Bizkaiko Lurralde Historikoen aurrekontu orokorrei buruzko foru arauetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen diren mugen eta baldintzen pean.
- 2. Kreditu zabalgarrien funtsezko ezaugarria hau da: sorburua gastuen aurrekontuko edozein partidatan duten kreditu-transferentzien helmuga izan daitezke kredituok.

### **BIGARREN ATALA. AURREKONTU-ALDAKETAK ETA HAIEN IZAPIDETZEA . (AFATBEKO II. TITULUKO III. KAPITULUKO I. ATALEKO 53. ETA 54. ARTIKULUAK, II. ATALA ETA III. ATALA GARATZEN DITU)**

#### **18. artikulua. Kreditu-transferentziak.**

- 1. Gastuen egoera-orriaren aldaketak kreditu-transferentziazat jo behar dira, baldin eta haien bitartez, eta gastuen egoera-orriaren zenbateko osoa aldatu gabe, zenbateko osoa edo partziala aurrekontu-kreditu batetik bestera aldatzen bada.
- 2. Irizpide orokorra hau da: kreditu-transferentzien helmuga kapitulu bereko partidak izan behar dira, edo gastuen aurrekontuko III, VI, VII, VIII eta IX. kapituluetakoa, edo zabalgarritzat kalifikatuta daudenak.
- 3. Kreditu-transferentziek murriztapen hauek dituzte:
  - a) transferentzia edo deuseztatzeen bidez murriztu diren kredituak ezin dira kreditu-transferentzien bidez gehitu. Partida murriztuok haiek parte diren lotespen-poltsatik atera behar dira,
  - b) transferentzia, zabalkuntza edo kreditu osagarrien bidez gehitu diren kredituak ezin dira kreditu-transferentzien bidez murriztu. Partida gehituok haiek parte diren lotespen-poltsatik atera behar dira,.
- 4. Kreditu-transferentzien betekizun eta mugetarako salbuespenak Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategineko 59. artikuluan eta Aurrekontu Orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko Foru Arauan zehazten dira.

5. Jatorria «ordainketa globaleko kreditua» programan duten transferentziak edozein gastu-partidatarako erabil daitezke, baina ezingo dituzte konpromiso-kredituak finantzatu.
6. Foru Aldundiaren sailek eskatzen badute transferentziak egiteko «ordainketa globaleko kreditua» programatik eta eskaera horiek ez badiote I. kapituluari eragiten, bada, orduan, eskaera horiek honela izapidetu beharko dira:
  - a) transferentzia eskatzen duen foru-diputatuak justifikatu egin beharko du aurrekontuko zuzkidura gehitu beharra dagoela eta bere sailak dituen kredituak ez direla nahikoa gabeziei erantzuteko,
  - b) transferentzia-eskabidearekin batera memoria bat aurkeztu behar da, honako hauek dituena:
    - kasuan kasuko gastu-programan sortutako beharrezanaren analisia, eta adierazi behar da aurrekontuaren betearazpenak zenbaterainoko desbideratzeak eragin dituen helburuak lortzeko begira,
    - sailaren kredituen gauzatze maila aurreikusten duen azterlana,
    - zein eragin izango duen transferentziak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan, eta, hala badagokio, dagozkien adierazleen kuantifikazioa eta periodizazioa eguneratu beharko da,
    - transferentziak aurrekontu-egoeretan izango duen eragina,
    - Ogasun eta Finantza Sailak transferentzia hori izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio.
7. Aurrekontuetan egin nahi diren gainerako transferentzien izapideak transferentzia eskatzen duen saileko titularrak edo foru-erakunde autonomoko lehendakariak/zuzendariak hasi behar dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan.

Transferentzia-eskabideak honako hau jaso behar du memoria batean:

- transferentzia justifikatzen duten arrazoiak,
- zein eragin izango duen transferentziak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan, eta, hala badagokio, dagozkien adierazleen kuantifikazioa eta periodizazioa eguneratu beharko da,
- transferentziak aurrekontu-egoeretan izango duen eragina,
- Ogasun eta Finantza Sailak transferentzia hori izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio.

## **19. artikulua. Kreditu gehigarriak.**

1. Hurrengo ekitaldira arte ezin gerora daitekeen gasturen bat aurrekontuaren kontura egin beharra dagoenean eta horretarako krediturik ez badago, edo kreditua, behin Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren testu bateginean baimendu diren gainerako aldaketak agortuta, nahikoa ez bada, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak kreditu gehigarria baimentzeko foru arauaren aurreproiektua igorriko dio Foru Aldundiari, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Batzar Nagusietako Mahaiari presazko prozeduraren bidez izapidetzeko eskatuko dio.

2. Kreditu gehigarriaren izapideak kreditua eskatzen duen saileko titularrak edo foru-erakunde autonomoko lehendakariak/zuzendariak hasi behar dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan.

Kreditu gehigarriaren eskabideak honako hau jaso behar du memoria batean:

- kreditu gehigarria justifikatzen duten arrazoiak,.
- zein eragin izango duen kreditu gehigarriak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan, eta, hala badagokio, dagokien adierazleen kuantifikazioa eta periodizazioa eguneratu beharko da,.
- kreditu gehigarriak aurrekontu-egoeretan izango duen eragina,.
- memoria ekonomikoa eta dagokion finantzaketa-txostena,.
- generoaren eraginaren ebaluazio-txostena,.
- Ogasun eta Finantza Sailak kreditu-aldaketa hori izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio.

Aurrekontu-aldaketa izapidetzen den bitartean, araudi honetan ezartzen den kontrol ekonomikoari buruzko txostena erantsi behar zaio prozedurari.

3. Halako aurrekontu-aldaketen izapidetzeak foru-arauen aurreproiektuetarako ezartzen diren betekizunak bete behar ditu.
4. Kreditu gehigarriek izaera mugatzailea eta loteslea izango dute, onesterakoan duten desagregazio mailarekin.

## **20. artikulua. Kreditu-zabalkuntzak.**

1. Aurrekontuen gastuen egoera-orriko kredituaren zabalkuntza aurrekontuko sarreren egoera-orriko kreditu handiagoarekin finantzatuko da.
2. «Ordainketa globaleko kreditua» programako kredituen zabalkuntzek muga bat izango dute zenbatekoari dagokionez: diruzaintzako geldikina, alegia; bada, zabalkuntza horiek kreditu-deuseztatzeekin eta/edo diruzaintzako geldikinarekin finantzatuko dira.
3. Gainerako kreditu-zabalkuntzak kofinantzatutako sarrerekin finantzatuko dira, urte bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan zehazten diren murriztapen eta ezaugarriekin.
4. «Ordainketa globaleko kreditua» programako kreditu-zabalkuntzen izapidetzea Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuak egingo du, eta egiaztatuko du ea diruzaintzako geldikinik dagoen edo, hala badagokio, dagokion kreditu-deuseztatzea kontabilizatu den.
5. Gainerako kreditu-zabalkuntzen izapideak kreditua eskatzen duen saileko foru-diputatu titularrak edo foru-erakunde autonomoko lehendakariak/zuzendariak hasi behar dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan.

Kreditu-zabalkuntzarako eskabideak honako hau jaso behar du memoria batean:

- kreditu-zabalkuntza justifikatzen duten arrazoiak,
- zein eragin izango duen kreditu-zabalkuntzak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan, eta, hala badagokio, dagokien adierazleen kuantifikazioa eta periodizazioa eguneratu beharko da,

- kreditu-zabalkuntzak aurrekontu-egoeretan izango duen eragina,
- erakunde kofinantzatzailearen konpromisoa;
- Ogasun eta Finantza Sailak kreditu-aldaketa hori izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio.

## **21. artikulua. Kreditu-sorkuntzak.**

1. Ekitaldian benetan lortzen diren sarrerek kreditua sortarazi ahal izango dute egoki den gastuen egoera-orrian, benetan lortutako sarrerok Foru Aldundiaren edo foru-erakunde autonomoen aurrekontuetako sarreren egoera-orrietan aurreikusita ez badaude, edo benetan lortutako sarreren zenbatekoak aurreikusitako zenbatekoa gainditzen badu.
2. Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategineko 62. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dira.
3. Kreditu-sorkuntzaren izapideak sorkuntza eskatzen duen saileko foru-diputatu titularrak edo foru-erakunde autonomoko lehendakariak/zuzendariak hasi behar dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan.

Kreditu-sorkuntzarako eskabideak honako hau jaso behar du memoria batean:

- kreditu-sorkuntza justifikatzen duten arrazoiak,
- zein eragin izango duen kreditu-sorkuntzak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan, eta, hala badagokio, dagozkien adierazleen kuantifikazioa eta periodizazioa eguneratu beharko da,
- kreditu-sorkuntzak aurrekontu-egoeretan izango duen eragina,
- ordainketa-gutuna, non benetan egindako sarrera jasotzen den,
- txosten bat, justifikatzen duena kreditu-sorkuntza izaera bereko gastuak ordaintzeko edo sarrera horiek sortarazi zituzten jarduerarekin zerikusia duten gastuak ordaintzeko diren kredituetan egiten dela,
- Ogasun eta Finantza Sailak kreditu-aldaketa hori izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio.

## **22. artikulua. Kredituak aurrekontuari eranstea.**

1. Aurreko ekitaldiko kredituak ekitaldi honi erantsi ahal zaizkio, baldin eta horretarako finantzaketa nahikoa badago.
2. Eransketen finantzaketa etor daiteke edo afektatutako diruzaintzako geldikin garbi likidotik, edo erabilgarri dagoen diruzaintzako geldikin garbi likidotik, kredituen deuseztatzetik edo gauzatzean jarraipena diren programetan kreditu nahikoa egotetik.
3. Bete egin behar dira Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategineko 63. artikuluan eta Aurrekontu Orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko Foru Arauan ezartzen diren gainerako baldintzak.
4. Kreditu-eransketaren izapideak eransketa eskatzen duen saileko foru-diputatu titularrak edo foru-erakunde autonomoko lehendakariak/zuzendariak hasi behar dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan.

Kreditu-eransketarako eskabideak honako hau jaso behar du memoria batean:

- kreditu-eransketa justifikatzen duten arrazoiak,
- zein eragin izango duen kreditu-eransketak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan, eta, hala badagokio, dagozkien adierazleen kuantifikazioa eta periodizazioa eguneratu beharko da,
- kreditu-eransketak aurrekontu-egoeretan izango duen eragina,
- Ogasun eta Finantza Sailak kreditu-aldaketa hori izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio.

### **23. artikulua. Kredituen deuseztapena.**

1. Kredituen deuseztapena gastuen aurrekontuaren aldaketa bat da, aurrekontuko partida bati esleitutako kreditua guztiz edo zati batean gutxitzea dakarrena, eta deuseztapen horrek, besteak beste, diruzaintzako geldikin negatiboa finantzatzea izango du xede.
2. Horretarako, Foru Aldundiak gastuen aurrekontuko edozein kreditu deuseztatu ahal izango du, betiere zuzkidura txikitu edo deuseztatu daitekeela irizten bazaio, txikitze edo deuseztatze horren ondorioz aurrekontuan jasota dagoen jarduera burutzeari kalte egin barik.
3. Kreditua deuseztatzeko espedienteen izapidetzea deuseztatzeak eragindako saileko foru-diputatuak eskatuta hasiko da, Foru Aldundiaren kasuan, edo, foru-erakunde autonomoen kasuan, lehendakariak/zuzendariak eskatuta, bere dituen eskumenen arabera, edo, bestela, Ogasun eta Finantza Saileko titularrak eskatuta.

Kreditua deuseztatzeko eskabideak honako hau jaso behar du memoria batean:

- kreditua deuseztatzea justifikatzen duten arrazoiak,
- zein eragin izango duen kreditua deuseztatzeak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan, eta, hala badagokio, dagozkien adierazleen kuantifikazioa eta periodizazioa eguneratu beharko da,
- kreditua deuseztatzeak aurrekontu-egoeretan izango duen eragina,
- Ogasun eta Finantza Sailak kreditu-aldaketa hori izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio.

### **24. artikulua. Programen sorrera eta elkarketa.**

1. Programak sortu eta elkartu ondoren, haietan jasotako kredituak Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateginean ezarritakoaren arabera arautuko dira.
2. Programen sorrera eta elkarketaren izapideak sorrera edo elkarketa hori eskatzen duen saileko foru-diputatuak edo foru-erakunde autonomoko lehendakariak/zuzendariak hasi behar dituzte, bakoitzak bere eskumenen barruan, edo Ogasun eta Finantzen foru diputatuak.

Programen sorrera eta elkarketarako eskabideak honako hau jaso behar du memoria batean:

- programen sorrera eta elkarketa justifikatzen duten arrazoiak,.
- zein eragin izango duen programen sorrera eta elkarketak gastu-programen betearazpenean lortu beharreko helburuetan eta hartarako egin beharreko ekintzetan, eta, hala badagokio, dagozkien adierazleen kuantifikazioa eta periodizazioa eguneratu beharko da,

- programen sorrera eta elkarketak aurrekontu-egoeretan izango duen eragina,
- Ogasun eta Finantza Sailak kreditu-aldaketa hori izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio.

## **25. artikulua. Diru-laguntza izendunen aldaketak.**

1. Diru-laguntza izendunen zenbatekoa (halako diru-laguntzak Aurrekontu Orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko Foru Arauan jasoko dira) bakarrik aldatu ahal izango da aldaketa horrek aurreikusita dagoen aurrekontu-kredituaren zenbatekoa murriztea badakar.
2. Diru-laguntza izendun baten euskarri diren aurrekontu-partidak transferentzia bidez gehitzea ez da kontsignazio izenduntzat joko.

## **26. artikulua. Diru-laguntza izendunen kreditu-gutxitzeak onesteko prozeduraren zehaztapenak.**

Ekitaldian diru-laguntza izendunerako onetsitako gastu-kreditua gutxitzeko proposamenean berariaz adierazi behar da zer arrazoi dagoen gutxitze hori justifikatzeko, eta, hala badagokio, adierazi behar da gutxitze horrek zer eragin izango duen lortu beharreko helburuetan eta kasuan kasuko gastu-programa gauzatzekoan egin beharreko ekintzetan.

## **27. artikulua. Diru-laguntza izendunak aurrekontuan jasotzeko diren partida ekonomikoen gehikuntza onesteko prozeduraren zehaztapenak.**

Diru-laguntza izendun baten euskarri den partida gehitzen duen transferentzia baimentzeko eskumena Foru Aldundiari dagokio, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak horretarako proposamena egin ondoren.

Gehikuntzaren ondoren ematen diren diru-laguntzak, zeinak 25. artikuluan adierazi den bezala ez diren diru-laguntza izenduntzat joko, 5/2005 Foru Arauko 20.2.c artikuluan ezarritako prozedurarekin bat izapidetu behar dira eta aurretiazko fiskalizazioari lotuta geratzen dira (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du).

Modu independentean egin behar dira, batetik, partida izendunen gehikuntzen kargura emandako diru-laguntzen justifikazioa, eta, bestetik, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan onartutako zenbatekoaren kargura emandako diru-laguntzen justifikazioa.

### **HIRUGARREN ATALA.**

#### **AURREKONTUEN KUDEAKETA, BETEARAZPENA ETA LIKIDAZIOA (AFATBEKO II. TITULUKO. III. KAPITULUKO IV. ATALA GARATZEN DU)**

### **LEHENENGO AZPIATALA.**

#### **SAILEI ZERGETATIK EZ DATOZKIEN DIRU-SARREREN KUDEAKETA (AFATBEKO II. TITULUKO III. KAPITULUKO IV. ATALEKO. 71. ARTIKULUA GARATZEN DU)**

## **28. artikulua. Aplikazio-eremua.**

Sailei zergetatik ez datozkien diru-sarrerak kudeatzeko prozedura bera aplikatuko zaie Bizkaiko Foru Aldundiko sailen jardueraren ondorioz sortzen diren zuzenbide publikoko sarreraren artetik zergetatik ez datozenei.

## **29. artikulua. Likidazioa.**

Ekubidea aitortzeko, likidazioa egin behar da, diru-sarrera publikoa dagokion saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez. Likidazio hori Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari bidali behar zaio, aurretiazko fiskalizazioa egiteko.

### **30. artikulua. Autolikidazioa.**

Alderdi batek eskatuta hasi ahal izango da prozedura, autolikidazio bat aurkeztuz, diru-sarrera publikoaren araudiak hala zehazten duen kasuetan.

### **31. artikulua.-Likidazio baten baja eta itzulketa.**

Sailari zergetatik ez datorkion diru-sarrera baten likidazioa erabat edo zati batean deuseztatu behar bada -administrazioaren kabuz edo alderdi batek hala eskaturik-, honako eragiketa hauek egin beharko dira, diru-sarrera publikoa kudeatuko duen saileko titularrak emandako foru-agindu bidez:

- a) deuseztatzearen ondoriozko baja ematea, deuseztatu beharreko zenbatekoa oraindik ordaindu ez denean; ondorioz, baja emango zaio kobratu ez den zenbatekoari,
- b) okerreko diru-sarrerak zein egon litezkeen interesak itzultzea, interesdunak zor guztia edo haren zati bat ordaindu badu,
- c) aurreko a) eta b) letretan adierazitako eragiketak batera egin daitezke, baldin eta likidazioaren zati bat ordaindu bada eta deuseztatu beharreko zenbatekoa kobratu ez dena baino handiagoa bada.

### **32. artikulua. Autolikidazioa itzultzea.**

Autolikidazio batean okerreko diru-sarrera bat kobratu bada, diru-sarrera hori guztia edo haren zati bat itzuliko da, okerreko diru-sarreraren zenbatekoaren arabera; horretarako, foru-agindua eman behar du diru-sarrera publikoa kudeatzen duen saileko foru diputatuak.

### **33. artikulua. Jakinarazpenak.**

Diru-sarrera publikoa kudeatzen duen sailak banan-banan egingo ditu eskubidea aitortzeko, baja emateko edo itzulketa egiteko foru-aginduen jakinarazpenak.

Eskubidea aitortzeko foru-agindua jakinaraztearekin batera, agiri bat bidaliko zaio interesdunari, zor duen zenbatekoa ordaindu ahal izateko.

Behin jakinarazpena egin ondoren, Ogasun eta Finantza Sailak diru-bilketako prozedura egingo du.

### **34. artikulua. Foru-sail bakoitzak kudeatutako diru-sarrera kolektiboak.**

Ordaindu behar duena nor den jakitea ezinezkoa bada edo beharrezkoa ez bada, foru-sailek banako diru-sarrerak egin ahal izango dituzte, horretarako berariaz irekitako kontuetan. Kasu horretan, sailak berak egingo du diru-sarrera kolektiboa, eta diru-sarrera horri dagokion agiria aurkeztuko du.

Ekitaldi bakoitza amaitzen denean, sailen diru-sarreraren kontuetan ezin gera daiteke egin beharreko diru-sarreraren ondoriozko saldorik, salbu eta ekitaldi biren artean dauden kanpainen ondoriozko diru-sarrerak badira.

## **BIGARREN AZPIATALA. OKERREKO ORDAINKETAK (AFATBEKO II. TITULUKO III. KAPITULUKO IV. ATALEKO 77. ARTIKULUA GARATZEN DU)**

### **35. artikulua. Okerreko ordainketen ondoriozko berandutze-interesen kalkulua.**

1. Oro har, okerreko ordainketen ondoriozko interesak dagokion ordainketa-erabakian ezarritako epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira sortzen.



2. Okerreko ordainketaren oinarri den araudi espezifikoak jakinarazpenerako eta/edo justifikaziorako baldintzaren bat ezartzen badu baina baldintza horiek ez badira epearen barruan betetzen, interesak sortuko dira baldintzok betetzeko epea amaitzen den egunetik aurrera haiek betetzen diren arte edo -bestela- diru-sarrera egiteko erabakian ezartzen den egunera arte igarotako epean; interesok aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera kalkulatu dira.
3. Diru-laguntzen arloko berandutze-interesen nahiz zerga-zorrei aplikatu beharreko berandutze-interesen kasuan, Bizkaiko Lurralde Historikoko diru-laguntzen araubidean eta Zergei buruzko Foru Arauan ezarritakoa aplikatuko da, hurrenez hurren.

#### **HIRUGARREN AZPIATALA.**

#### **AURREKONTUEN KUDEAKETA (AFATBEKO III. KAPITULUKO. IV. ATALEKO 70., 73. ETA 75. ARTIKULUAK ETA II. TITULUKO. IV. KAPITULUKO II. ATALEKO 87. ARTIKULUA GARATZEN DITU).**

#### **36. artikulua. Foru-erakunde autonomoentzako eta enpresa-sektore publikoko erakundeentzako barne-transferentziak.**

1. Foru-erakunde autonomoentzako barne-transferentziek Ogasun eta Finantza Sailean horretarako eskumena duen organoaren adostasuna behar dute.
2. Bizkaiko Foru Aldundiak bere erakunde autonomoei egiten dizkien transferentzia korranteek atxikipena badakarte, aurreko ekitaldietan finantzaketa-soberakina izateagatik, transferentzia korranteek beren zenbateko garbian kontabilizatu beharko dituzte erakunde autonomo horiek. Jasotako diru-laguntzen soberakinak Foru Aldundiari itzultzeko diren kredituak kreditu zabalgarritzat jotzen direnez, erakunde autonomoek kredituoi dagokien aurrekontu-aldaketa egin beharko dute eta soberakin horiek formalizazioan abonatu beharko dituzte.
3. Bizkaiko Foru Aldundiak foru-erakunde autonomoei eta enpresa-sektore publikoko erakundeek egiten dizkien transferentziak transferentzia korrontetzat joko dira, baldin eta erakundeon jarduera finantzatzeko edo ekitaldiko galerak konpentsatzeko erabiltzen badira.
4. Aldiz, Bizkaiko Foru Aldundiak foru-erakunde autonomoei eta enpresa-sektore publikoko erakundeek egiten dizkien transferentziak kapital-transferentziatzat joko dira, baldin eta erakundeon inbertsioak finantzatzeko edo aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko erabiltzen badira.

#### **37. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen eskubideak eta betebeharrak denboraren arabera egozteko irizpidea.**

1. Gastu-sarreraren denboraren arabera egozketa betiere gastu-sarrerok adierazten duten ondasun eta zerbitzuen korrante errealaaren arabera egingo da, eta ez haien ondoriozko korrante monetario edo finantzarioa gertatzen denean.
2. Sarrerek eta gastuek sorrarazten dituzten eskubideak eta betebeharrak sortzen direnean joko dira gauzatutzat sarrera eta gastu horiek.

#### **38. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen eskubideak eta betebeharrak aurrekontuari egozteko irizpidea.**

1. Eskubideak eta betebeharrak aurrekontuari egotzi aurretik, egitate ekonomikoaren ondoriozko eskubidea edo betebeharra aitortzeko administrazio-egintza eman behar da.
2. Eskubidea aitortzeko administrazio-egintzak egiteko, eskubideok kuantifikatzeko balio duten likidazio-egintzak egingo dira, kasu bakoitzeko lege-araudi espezifikoa aplikatuz kobratzeko eskubide bat sortzen denean, edo hirugarren batek Foru Aldundiaren edo foru-erakunde autonomoaren konturako prestazioak jaso dituenean.

- 3 Betebeharra aitortzeko administrazio-egintzak, berriz, hartzekodunak bere kargura duen prestazioa bete ondoren egingo dira, edo lege-araudia aplikatuz hirugarrenentzako eskubideak sortzen direnean Foru Aldundiaren aurrean edo foru-erakunde autonomoaren aurrean.

### **39. artikulua. Sarrerak eta gastuak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen urteko kontuetan erregistratzeko edo aitortzeko kontabilitateko irizpideak.**

Urteko kontuek ondarearen, egoera finantzarioaren eta ondarearen emaitza ekonomikoaren benetako egoera erakuts dezaten, honako hauek egin behar dira:

- a) Ondarearen emaitza ekonomikoan edo ondare garbiko aldaketen egoera-orrian hauek aitortu behar dira:
  - i) betebeharrak; aitortu behar dira nahiz eta oraindik eman gabe egon betebeharra aitortzeko egintza formala, baldin eta benetan jasotako ondasun edo zerbitzuak ondorioztatzen badira hartatik. Zenbatespen-metodoak erabiliz ebaluatzen diren betebeharrak ere erregistratu ahal izango dira,
  - ii) muga-eguneratu gabe dauden kobratzeko eskubideen ondorioz sortutako sarrerak.
- b) Honako hauei dagozkien periodizazioagatiko doikuntzak:
  - i) muga-eguneratutako eskubideena, haiek ondare garbian duten proiektzio ekonomikoa hurrengo ekitaldiari badagokio,
  - ii) muga-eguneratutako betebeharrarena, haiek ondare garbian duten proiektzio ekonomikoa hurrengo ekitaldiari badagokio.

### **40. artikulua. Ekarpenen behin betiko likidazioak kontabilizatzea.**

Euskal Herriko erakunde erkideei eta Udalkutxa funtsari egindako ekarpenen behin betiko likidazioak likidatzen den ekitaldiko abenduaren 31n kontabilizatuko dira, kontuan izan gabe ekarpenok noiz ordaindu edo kobratu diren.

## **LAUGARREN AZPIATALA. KONTRATAZIOA**

### **41. artikulua. Kontratazioa.**

1. Kontratazioaren adjudikazioa unitateko prezioetan egiten den kasuetan, unitate kopurua zehaztu ezin dela eta, ondorioz, ezta adjudikazioaren zenbatekoa ere, izapidetzea honela egin behar da: "A" kreditu-erreserbako txostena izapidetu beharko da, eta, ondoren, fiskalizatu egingo da, eta ordainketak "DOK" fase bakar batean egingo dira.

Nolanahi ere, bai kontratuaren adjudikazioa, bai egiten diren ordainketak, denak ere aurrez fiskalizatu beharko dira, gastua kontratazioan fiskalizatzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Hornidura-kontratuaren helburua artelanak edo Euskal Kulturaren Ondareko ondasunak eskuratzea bada, prozedura negoziatua erabili ahal izango da, eta horrelako ondasunetan eskuduna den sailak izapidetuko duen. Nolanahi ere, Euskal Kultur Ondarearen barruan sartutzat joko dira ondare higiezin, higigarri, arkeologiko, etnografiko, dokumental eta bibliografikoko ondasunak.
3. Urte anitzeko obra-kontratuetan, prezio osoa ordaintzeko modalitatekoetan salbu, lizitazioaren zenbatekoaren %10en pareko den kredituaren erreserba gehigarria egingo da. Kontratua esleitu ondoren, erreserba hori zuzendu egingo da, zenbateko hori gutxituz esleipenaren zenbatekoaren %10 arte. Kredituaren erreserba gehigarri hori kontratuan

ezarritako obra burutzeko epea amaitzen den ekitaldiari aplikatuko zaio, edo, bestela, hurrengo ekitaldian, azken ziurtapenaren ordainketa noiz egingo den.

Unitateko prezioaren arabera hornidura-kontratuetan, betiere Administrazio Klausula Berezien Pleguan jaso baldin bada hornitu beharreko unitate-kopurua areagotu daitekeela kontratuaren prezioaren %10en pareko izan arte, aldatzeko espedienterik izapidetu behar izanik gabe, esleipenaren zenbatekoaren %10en pareko den kredituaren erreserba gehigarria egingo da.

Erreserba gehigarri horiek Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateginekoko 55.4. artikuluan ezarritako portzentajeen barruan zenbatuko dira.

## **BOSGARREN AZPIATALA.**

### **HITZARMENAK ETA BALIABIDE PROPIO PERTSONIFIKATUEI EGINDAKO AGINDUAK**

#### **42. artikulua. Xedea.**

Azpiatal honen xedea zenbait kontzeptu definitzea da, argitzeko nola erabili hitzarmenak eta baliabide propio pertsonifikatuei egindako aginduak, Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek erabiltzen dituzten administrazio-prozedura batzuen barruko tresnak diren heinean.

#### **43. artikulua. Foru sektore publiko administratiboko hitzarmenen definizioa.**

Oro har, hitzarmen deritze ondorio juridikoak eta helburu komun bat dituzten akordioei; horrelako hitzarmenak egiten dituzte bai administrazio publikoek, bai elkarri lotutako edo elkarren mendeko diren erakunde publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek haien artean nahiz zuzenbide pribatuko subjektuekin.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek egindako hitzarmen administratiboei, baldin eta aurreko definizioarekin bat egiten badute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Legean jasotako oinarritzko legeria aplikatuko zaie.

#### **44. artikulua. Foru sektore publiko administratiboko hitzarmenak.**

1. Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek hitzarmenak egin ditzakete zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin, ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira, transakzio gai izan daitezkeen gaiei buruzkoak ez badira eta haien xedea babestu behar duten interes publikoa betetzea bada.
2. Hitzarmen horiek barne hartzen dituzte, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiari lotutako nahiz haren mendeko zuzenbide pribatuko erakundeekin egindako hitzarmenak.
3. 43. artikuluan aipatutako oinarritzko legeria aplikagarriaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiak eta haren foru erakunde autonomoek egindako zenbait hitzarmeni, hala badagokio, horiek arautzen dituzten lege bereziak edo sektoreko legeak aplikatuko zaizkie.
4. Horrenbestez, hitzarmena alderdien arteko akordio bat izango da, helburu komun bat lortzekoa eta ezaugarri hauek dituena:
  - a) Alde biko izaera duen negozio juridiko bat izan behar da.
  - b) Helburu komuna interes orokorreko edo sozialeko jarduera bat egitea izan behar da.
  - c) Alderdien arteko lankidetzaren plano berean dago.
  - d) Hitzarmenak alderdien arteko elkarrekiko betebeharrak sortu behar ditu, ez ondare izaerako elkarrekiko prestazioak.

#### **45. artikulua. Diru-laguntzak emateko hitzarmenak.**

Diru-laguntzak ematen dituzten hitzarmenek, 43. artikuluan jasotako oinarritzko legeria betetzeaz gain, bat etorri behar dute 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridikoa arautzen duena) xedatutakoarekin.

#### **45 bis artikulua. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak ezarritako lau urteko indarraldia gainditzen duten Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen hitzarmenek bete behar dituzten betekizunak.**

1. Lau urtetik gorako indarraldia izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoek sinatutako hitzarmenek:
  - Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta/edo haren erakunde autonomoekin hitzarmena sinatzen duten entitateek sektore publikoan sartuta egon behar dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 2. artikuluko lehen apartatuan zehaztutakoaren arabera, eta sektore publikoak %50etik gorako partaidetza izan behar du haietan.
  - Osagai objektiboen bidez justifikatu beharko da lau urtetik gorako epe bat behar dela hitzarmenaren bidez gauzatu nahi den jarduera benetan gauzatzeko eta likidatzeko. Justifikazioa txosten batean islatuko da, eta Fiskalizazioaren kontrol- eginkizunaren pean jarriko.
  - Klausuletan hitzarmenaren iraupena jasoko da, bai eta hitzarmena indarrean den urteetako bakoitzean egingo diren jarduerak ere.
2. Hitzarmenek iraupen jakin bat izango dute, zeina ezin izango baita zortzi urtetik gorakoa izan.

Hizpatutako epea amaitu aurretik, sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena beste lau urtez gehienez luzatzea, baldin eta aukera hori aurreikusi bada sinatutako hitzarmenean.

#### **46. artikulua. Kontratuen berezko zerbitzuak.**

Hitzarmenek ezin dute xede izan kontratuen berezko zerbitzuak ematea. Hala izatekotan, hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoarekin bat etorriko da.

#### **47. artikulua. Baliabide propio pertsonifikatuei egindako aginduak.**

Foru sektore publikoaren esleitzeko ahalmenak antolatu ahal izango dira obra-kontratuen berezko zerbitzuak, hornidurak, obra-emakidak eta zerbitzuen emakidak zuzenean exekutatu, tarifa-konpentsazioaren truke. Horretarako, zuzenbide publiko zein pribatuko beste pertsona juridiko batez baliatuko da, hari aurretik aginduta, betiere erabilitako pertsona juridikoari interesdunarekiko baliabide propio pertsonifikatuko kalifikazio juridikoa ematea badago, hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoaren arabera.

Lege horretan ezarritakoa betetzen duten aginduak ez dira kontratutzat hartuko.

### **SEIGARREN AZPIATALA.**

#### **ITXIERA-ERAGIKETAK FORU ALDUNDIAN ETA FORU-ERAKUNDE AUTONOMOETAN (AFATBEKO II. TITULUKO III. KAPITULUKO. IV. ATALA GARATZEN DU)**

#### **48. artikulua. Epea Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru-agindu baten bidez zehazten zaien itxiera-eragiketak.**

1. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru-agindu bidez hauek zehaztuko dira:

- a) abenduko hartzeko aktiboak eta aparteko ordainsaria jasotzeko nominak ixteko azken eguna. Egun horretan bertan bidaliko zaizkio Fiskalizazio Zerbitzuari,
  - b) hartzeko aktibo eta pasiboak zein abenduko aparteko ordainsariak jasotzeko nominak zein egunetatik aurrera ordainduko diren,
  - c) zein den sarrerak itzultzeko erabakiak hartzeko azken eguna,
  - d) zein den zerga-eskubideak aitortzeko eta muga-eguneratutako nahiz kobratu gabeko zorren interesen inguruko erabakiak hartzeko azken eguna,
  - e) zein den azken eguna foru-sailek tramitatu dituzten baina aurretik Fiskalizazio Zerbitzura igorri ez dituzten espedientei buruzko fidantzak zerbitzu horretan jasotzeko, Zerbitzuak kontabilizatu ditzan,
  - f) zein den azken eguna onartuta egon daitezen aribideko ekitaldiko gastuei nahiz hurrengo ekitaldietako izapidetze aurreratuko gastuei dagozkien kontabilitate-agiriak, «O», «DO» eta «ADO» ez direnak; izan ere, bestela, baliorik gabe geratuko dira automatikoki, eta ez dute inolako ondorioirik sortuko,
  - g) zein den azken eguna aribideko ekitaldiko gastuei nahiz hurrengo ekitaldietako izapidetze aurreratuko gastuei dagozkien kontabilitate-agiriak, «O», «DO» eta «ADO» ez direnak, sistema informatikoan izapidetzeko, eta zein azken egun balioduna agiriok jatorrizko sailetatik irten eta Ogasun eta Finantza Sailean sartzeko.
2. Aurreko 1.a eta 1.b puntuetan xedatutakoaren kalterik gabe, abenduko ordezkapenei dagozkien nominak, hilabete bereko nominan izandako akatsei dagozkien nominak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagozkien nominak hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15era arte bidali ahal izango dira Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzura, fiskalizatu eta kontabilizatzeko asmoz.

#### **49. artikulua. Kontabilitate-agiriak egin eta tramitatzea.**

- 1 Aribideko ekitaldiko gastuei buruzko «O», «DO» eta «ADO» kontabilitate-agiriak nahiz deuseztapen-agiriak izapidetzeko azken eguna hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15a izango da.

Hori izango da azken eguna, hain zuzen, sistema informatikoan izapidetu beharreko espedienteak jatorrizko sailetik irten eta Ogasun eta Finantza Sailean sar daitezen.

- 2 Aribideko ekitaldiko eskubideak likidatzeko foru-aginduak Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuan jasotzeko azken eguna hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15a da, eta horrek dagokion hartzekoa sortuko du aribideko ekitaldiko kontuetan.

#### **50. artikulua. Eusko Jaurlaritzarekin batera finantzatutako gastuak.**

«Gastuak elkarrekin finantzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren transferentziak» direla-eta jasotako sarrera arruntei eta kapital-sarrerei dagokienez, sailek zehaztuko dituzte gastuen aurrekontuan aitortu diren zenbatekoak (O fasea) edo ekitaldiaren barruan aitortuko direnak. Euskal Autonomia Erkidegoak berari dagozkion zenbatekoak sartu ez dituenean, sailek aribideko ekitaldiari dagokion likidaziorako foru-agindua egin behar dute, eta hori Fiskalizazio Zerbitzuari agindu behar diote, gehienez ere hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15erako, zerbitzu horrek fiskalizatu dezan eta aribideko ekitaldiko sarrerren aurrekontuari egotzi diezaion.

#### **51. artikulua. Europar Batasunaren transferentziak.**

«Europar Batasunaren transferentziak» direla-eta jasotako sarrera arruntei eta kapital-sarrerei dagokienez, Ogasun eta Finantza Sailek aribideko ekitaldian likidatuko ditu oraindik kontabilizatu gabe dauden EBren transferentzia guztiak, baldin eta transferentzia horiek ordaintzea aribideko ekitaldian onetsi bazuen Europar Batasunak, benetako diru sarrera noiz

gertatuko den kontuan izan barik, eta baldin eta transferentzia horiek aurretik likidatu ez badira. Sailak transferentziaren zenbatekoa, azpikontzeptua eta deskribapena adierazi behar ditu. Likidazioa Fiskalizazio Zerbitzura bidali behar da, gehienez ere hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15erako, fiskalizatu dezan eta aribideko ekitaldiko sarreraren aurrekontuari egotzi diezaion.

Ukitutako sailek azalpen-memoria egin behar dute kofinantzatutako proiektuei buruz, eta Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrolerako Zuzendariordetzari bidali behar diote, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen.

## **52. artikulua. Kofinantzatutako proiektuak.**

Beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin kofinantzatutako gastuen kasuan, urtero, eta likidazio kontablea egindakoa, azalpen-memoria egin behar du gastua exekutatzeko duen sailak, eta Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrolerako Zuzendariordetzari bidali behar dio, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen.

## **53. artikulua. Aurrerakinak.**

Itzuli barik dauden aurrerakinak direla-eta Foru Aldundiak dituen aldeko eskubide guztiak aitortzearen, aribideko ekitaldian kobratzeko dituzten eskubideak likidatzeko foru-agindua bidali behar diote Aldundiko sailek Fiskalizazio Zerbitzuari, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15a baino lehen. Aginduaren oinarria ekitaldian gastuen 8. kapituluagatik emandako eta ordaindutako aurrerakinak dira (P fasea), pertsonalaren aurrerakinak salbu. Aginduotan honako datu hauek adierazi behar dira: zenbatekoa, zorduna, aurrekontuko kontzeptua, deskribapena, data eta epea. Egun horretara arte aitortutako eskubideak alderatutakoan, muga-eguna abenduaren 31n duten baina kobratu gabe dauden eskubideak hartuko dira.

## **54. artikulua. Saldoen arazketa.**

Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrolerako Zuzendariordetzak, abendua baino lehen, aurreko ekitaldietan sail bakoitzak hartu baina oraindik ordaindu edo kobratu ez dituen eskubide eta betebeharren zerrenda bidaliko die sailtako zerbitzu orokorre, 10 egun balioduneko epean jakinaraz dezaten ea eskubide eta betebeharrak mantendu behar diren, baja eman behar zaien edo zuzendu egin behar diren.

## **55. artikulua. Ordainketen agindua eta sarreraren itzulketa denboraren arabera egozte.**

Abenduaren 31ra arteko epea dago aribideko aurrekontuaren kargurako ordainketak agindu eta egiteko.

Aribideko ekitaldiko aurrekontuan aitortutako betebeharrak dagozkien ordainketak abenduaren 31ren ondoren egiten badira, itxitako ekitaldien kargura egingo dira.

Hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 1etik aurrera, aurreko ekitaldiei dagozkien ordainketen itzulketa guztiak aribideko ekitaldiko sarreratzat hartuko dira.

Hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 1etik aurrera, aurreko ekitaldiei dagozkien sarreraren itzulketa guztiak aribideko ekitaldiko sarrerak gutxituko dituzte.

## **56. artikulua. Ordainketa-aginduetarako aginduen indarraldia.**

Aribideko ekitaldiari egotzita eman ziren ordainketa-aginduetarako aginduek abenduaren 31n bete gabe jarraitzen badute, indarrean jarraituko dute harik eta hartzekodunei ordaindu, aginduak deuseztatu edo haien preskripzioa adierazi arte.

Horretarako, arlo horretan eskuduna den zerbitzuak gorde egingo ditu ordainketa-aginduetarako agindu horiek, eta ondo identifikatu behar du aginduok itxitako aurrekontuei egotzen zaizkiela, argi eta garbi bereizi ahal izateko aurreko horiek -batetik- eta urtariletik aurrera eman eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuari aplikatzen zaizkionak -bestetik-.

### **57. artikulua. Aurrekontuko saldoak deuseztatzea.**

Fiskalizazio Zerbitzuak, aurrekontu-ekitaldia bukatutakoan, baina hura itxi aurretik, deuseztatu egingo ditu Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateginean ezarritakoaren arabera ez-erabilgarri moduan geratu diren aurrekontuko partiden kredituak.

### **58. artikulua. Sarrerak sailen kontu korranteetan .**

Foru Aldundiaren sailen kontuetan egiten diren sarreretatik kasuan kasuko araudiaren arabera sarrera berezi kolektibo gisa kalifikatutakoak, ekitaldiko azken likidazio-aldikoak badira, abenduaren 31n likidatuko dira.

### **59. artikulua. Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari bidali beharreko dokumentazioa.**

Jarraian adierazten diren zerbitzuek honako dokumentazio hau bidali behar dute, hurrengo ekitaldiko urtarilaren 31 baino lehen:

- a) Zerga-bilketako Zerbitzua: gerorapenen egoera abenduaren 31n; muga-eguneratutako zenbatekoak urteka eta azpikontzeptuka adierazi behar dira,
- b) Finantza Zerbitzua:
  - Zor Publikoaren egoera abenduaren 31n; urtean zehar geratutako mugimenduak adierazi behar dira,
  - interesen periodizazioa,
  - Zor Publikoaren mugaegunak, aribideko ekitaldian gertatzen direnak.
- c) Ondare Zerbitzua: ibilgetu materialaren eta ez-materialaren inentarioa abenduaren 31n; egindako aldaketak adierazi behar dira, altak eta bajak zehaztuz,
- d) Lehendakaritza Saileko Langileak Kudeatzeko Zerbitzua: langileei emandako aurrerakinen saldo bizia abenduaren 31n.

### **60. artikulua. Kupoa, Eusko Jaurlaritzari egiten zaizkion ekarpenak eta Udalkutxa Funtsa.**

Azpiatal honetan ezarri diren mugak ez dira aplikatuko Kupoa, Eusko Jaurlaritzari egiten zaizkion ekarpenak eta Udalkutxa Funtsa direla-eta egin beharreko ordainketen tramitazioari dagokionez.

#### **ZAZPIGARREN AZPIATALA.**

#### **AURREKONTUEN LIKIDAZIOA (AFATBEKO II. TITULUKO III. KAPITULUKO IV. ATALEKO 81. ARTIKULUA GARATZEN DU).**

### **61. artikulua. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza.**

1. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitzak zati bi ditu: aribideko ekitaldiko emaitza eta itxitako ekitaldiei dagokiena.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren ekitaldiko aurrekontuaren emaitza adierazpen matematiko honen bidez kalkulatzen da:

Likidatutako eskubide garbiak - Aitortutako betebeharrak garbiak + Itxitako ekitaldietako kobrantza-eskubideen birgaitzeak - Itxitako ekitaldietako eskubideen deuseztatzeak eta bajak + Itxitako ekitaldietako betebeharren deuseztatzeak.

## 62. artikulua. Aurrekontuaren emaitza doitua.

1. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza doitua ekitaldiko aurrekontuaren emaitzari kontzeptu hauek aplikatuz kalkulatu da:
  - a) finantzaketa afektatua duten gastuen ondoriozko desbideratzeak:
    - finantzaketa-desbideratzeak, magnitude bezala, islatzen du zer desoreka dagoen une jakin batera arte finantzaketa afektatua duen gastu bat egiteko aitortutako aurrekontuko sarreraren artean eta gastu horretatik ekitaldi horretan gauzatutako zatiaren arabera aitortu beharko liratekeen artean, baldin eta sarrera afektatuen betearaztea eta gastuaren betearaztea modu harmonikoan egiten badira.
    - Aurrekontuaren emaitza txikitu egin behar da ekitaldiari egotzi beharreko desbideratze positiboak direla-eta, eta handitu, ordea, desbideratzeok negatiboak badira,
  - b) erabilgarri dagoen diruzaintzako geldikin garbi likidoarekin finantzatutako gastuak:
    - aurrekontuaren emaitzan doitu egin behar da erabilgarri dagoen diruzaintzako geldikin garbi likidotik erabilitako zenbatekoa; horrela, ezabatu egingo da gastuak aurreko ekitaldietako baliabideekin finantzatzeak sortzen dituen efektu negatiboak, gastuok ez baitira egotzitako baliabide moduan agertzen sarreraren aurrekontuaren kudeaketan.
    - Ondorioz, aurrekontuaren emaitzari gehitu egin behar zaio diruzaintzako geldikin horrekin finantzatu diren betebeharrak aitortuen zenbatekoa,
  - c) doikuntza finantzarioa: aurrekontuaren emaitza gutxitu egingo da, ekitaldiaren amaieran datozen ekitaldietan kobratzeko zailtzat jotzen diren kobrantza-eskubideen zenbatekoa beste, hain zuzen ere,
  - d) itunpeko tributuen ondoriozko doikuntza: aurrekontuaren emaitza, gainera, honenbeste murriztuko da: itunpeko tributu aitortu baina kobratu gabekoen etorkizuneko diru-billetaren ondorioz ekarpenak eta Udalkutxa direla-eta ordaindu beharko litzatekeen zenbateko zenbatetsia,
  - e) kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabarrengatik egoki irizitako beste zuzenketa guztiak.

## 63. artikulua. Definizioak.

61. artikuluan zehazten den adierazpen matematikoaren osagaiak honela definitzen dira:

- a) likidatutako eskubide garbiak: uneko ekitaldian Bizkaiko Foru Aldundiaren alde aitortutako aurrekontuko eskubide guztien batura ken, batetik, kobratzeko dauden eskubideen deuseztatzeak eta, bestetik, ekitaldi horretan bertan eskubideetan gertatutako bajak.

Aribideko ekitaldian Bizkaiko Foru Aldundiaren alde aitortutako aurrekontuko eskubideak sartuko dira, hain zuzen ere, sarreraren sailkapen ekonomikoko kapitulu guztietan.

Deuseztatutako eskubideak hauek dira: likidazioen deuseztatzeak eta sarreraren itzulketa dela-eta egindako deuseztatzeak.

Eskubideetan gertatutako bajak, berriz, gauzazko eskubideen kobrantza dela-eta izandako bajak, kaudimengabezien ondorioz izandako bajak eta beste arrazoi batzuegatik izandako bajak izango dira,



- b) aitortutako betebeharrak: Bizkaiko Foru Aldundiak aribideko ekitaldian hirugarrenen alde aitortutako aurrekontuko betebeharrak batura ken betebeharrak deuseztatzeak (besteak beste, ekitaldian izandako itzulketak), salbu eta dagoeneko itxita dauden ekitaldietan aitortutako betebeharrak deuseztatzeak direnean.

Bizkaiko Foru Aldundiak aribideko ekitaldian hirugarrenen alde aitortutako aurrekontuko betebeharrak sartuko dira, hain zuzen ere, sarreren sailkapen ekonomikoko kapitulu guztietan,

- c) itxitako ekitaldietako kobratu gabeko kredituen birgaitzeak: itxitako ekitaldietako kredituen zenbatekoa, baldin eta pertsona edo erakunde zordunen kaudimengabezia dela-eta kredituok behin-behinean azkendutzat jo badira eta Bizkaiko Foru Aldundiak aribideko ekitaldian birgaitu baditu,
- d) itxitako ekitaldietako eskubideen deuseztatzeak: dagoeneko itxita dauden ekitaldietako kredituetatik Bizkaiko Foru Aldundiak aribideko ekitaldian deuseztatu dituen dagokien zenbatekoa.

Behar ez bezala egindako likidazioak deuseztatzeagatik egin beharreko itzulketak indarrean dagoen ekitaldiko sarreren aurrekontuari egotzi behar zaizkio, ordainketa egiten den unean, eta diru-bilketa murriztu behar da, dagokion aurrekontu-partidan,

- e) itxitako ekitaldietako eskubideen bajak: dagoeneko itxita dauden ekitaldietako eskubideetatik Bizkaiko Foru Aldundiak aribideko ekitaldian ezeztatzen dituen zenbatekoa. Ezeztatzea hauengatik gerta daiteke: ondasunak zorren ordainketa gisa adjudikatu izanagatik, gauzako beste kobrantza batzuk gertatu izanagatik, preskripzioagatik, pertsona edo erakunde zordunen kaudimengabeziagatik edo legez aitortutako beste arrazoi batzuegatik,
- f) itxitako ekitaldietako betebeharrak deuseztatzeak: dagoeneko itxita dauden ekitaldietatik ordaintzeko geratzen diren betebeharretatik Bizkaiko Foru Aldundiak deuseztatu dituen zenbatekoa. Deuseztatzea hauengatik gerta daiteke: edo betebeharrak preskripzioagatik, edo indarrean dagoen araudian jasotako beste arrazoi batzuegatik.

Itxitako ekitaldietako betebeharrak preskripzioen barruan zenbateko hau sartuko da: hartzekodun legitimoak diren pertsonak edo erakundeek edo haien eskubidedunek horretarako legez ezarritako epean ordainketa erreklamatu ez izanagatik iraungitzen diren itxitako ekitaldietako betebeharrak aitortuen zenbatekoa, baldin eta epe hori ez bada eten Bizkaiko Foru Aldundiak zorra ordaindu edo aitortzearen egindako edozein ekintzaren ondorioz,

- g) doikuntza finantzarioa: kaudimengabeziagatik hornidura, zeina zuhertasun-printzipioa aplikatzearen ondorioz zuzkitzen den. Hornidura hori kalkulatzeko, sarreren aurrekontuan kobratzeko geratzen diren eskubideetatik zenbatetsi egingo da zer saldo diren kobratzeko zailak edo ezinezkoak.

Saldo kobraezinezkoak zenbaterakoan bereizi egin behar dira uneko ekitaldian sortutako eskubideak eta dagoeneko itxita dauden ekitaldietan sortutakoak. Era berean, kapitulu bakoitzean zehaztu egin behar da eskubideetatik zein zenbateko dagokien itunpeko tributuei eta zein itunpekoak ez diren tributuei.

Hori guztia egiteko, Ogasun eta Finantza Sailak horretarako zehaztuko dituen irizpideak aplikatu behar dira,

- h) itunpeko tributuen ondoriozko doikuntza: hornidura bat egin behar da itunpeko tributuegatik kobratzeko geratzen den zatiagatik, eta zati hori kobratzen denean, egindako hornidura hori Euskal Herriko erakunde erkideen eta Udalkutxa funtsaren alde (halako ekarpenak arautzen dituen legediaren arabera) egin beharreko ekarpenen kalkuluan sartuko da.

Hornidura zuzkitu aurretik eskubideak murriztu behar dira, eta murrizketa hori doikuntza finantzariaren bestekoa izango da.

Doikuntza egiterakoan bereizi egin behar dira aribideko ekitaldian sortutako eskubideak eta dagoeneko itxita dauden ekitaldietan sortutakoak.

#### **64. artikulua. Kreditu-geldikinak.**

Kreditu-geldikinak hau dira: aurrekontu-ekitaldiaren azken egunean beren gaineko betebeharrak aitortuta ez duten kredituen behin betiko saldoak.

#### **65. artikulua. Diruzaintzako geldikina.**

1. Diruzaintzako geldikin gordina eragiketa honen emaitza da: aurrekontuko funts likidoak gehi kobratzeko dauden eskubideak ken ordaintzeko dauden betebeharrak; bai batzuk bai besteak abenduaren 31n daudenak izango dira. Eskubide-betebeharrok kuantifikatzeko kontuan hartuko da ekitaldiaren amaieran zer saldo duten eskubide-betebeharrok kalkulatzeko erabiltzen diren kontuek.
2. Diruzaintzako geldikin garbia eragiketa honen emaitza da: diruzaintzako geldikin garbia ken doikuntza finantzarioa; doikuntza hau araudi honetako 63. artikuluan definitzen da. Kontuan hartuko dira, halaber, kasu bakoitzeko inguruabarrak direla-eta egin beharreko beste doikuntza guztiak.
3. Diruzaintzako beharrizanen plangintza erraztearren, diruzaintzako geldikin garbi likidoa kalkulatu da, kontuan hartuta kobratzeko geratzen diren eskubideen bilketak eta ordaintzeko dauden obligazioen ordainketak duten periodizazioa, hau da, zenbatetsiz geldikinetik zer zati bihurtuko den likido hurren-hurrengo ekitaldian.
4. Diruzaintzako geldikin garbi likidoak osagai bi ditu:
  1. diruzaintzako geldikin garbi likido afektatua, hau da, diruzaintzako geldikin garbi likidotik honako hauek finantzatzeko erabili behar den zatia:
    - a) kreditu-eransketak, ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan hala ezartzen direnak,
    - b) finantzaketa afektatuko gastuak, finantzaketako desbideratze positibo metatuak badaude,
    - c) hurrengo ekitaldian sor litezkeen betebeharrei aurre egiteko beharrezkotzat jo litezkeen baliabideen zenbatekoa,.
  2. diruzaintzako geldikin garbi likido erabilgarria, hots, diruzaintzako geldikin garbi likidoa ken aurreko a), b) eta c) letretako zenbatekoak.

#### **66. artikulua. Foru-erakunde autonomoen aurrekontuen likidaziotik ateratzen den informazioa.**

1. Foru-erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioaren ondorioz, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateginean Foru Aldundiaren kasurako ezartzen diren magnitude berberak zehaztu beharko dira erakunde horietako bakoitzerako.
2. Erakunde autonomoen datuak 61-65. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera kalkulatu dira. Nolanahi ere, aurrekontuko emaitza doitua eta diruzaintzako geldikina zehazterakoan ezin dira aplikatu ez doikuntza finantzarioa ez itunpeko tributuen ondoriozko doikuntza, kasu honetan ez baitagokio horiek aplikatzea.

**67. artikulua. Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuen likidaziotik ateratzen den informazio bateratua.**

Foru-sektore publiko administratiboaren datu bateratuak kalkulatu behar dira, aurrekontuaren likidaziotik ateratzen den magnitude bakoitzerako.

**IV. KAPITULUA.**

**FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOEN, MERKATARITZAKO FORU-SOZietATEEN  
ETA FORU-FUNDAZIOEN KREDITUAK (AFATBEKO II. TITULUKO. IV. KAPITULUA  
GARATZEN DU)**

**LEHENENGO ATALA.**

**AURREKONTUAK, AURREZ IKUSITAKO FINANTZAKO EGOERA-ORRIAK ETA  
KUDEAKETARAKO NAHIZ ALDAKETARAKO ARAUAK FORU ENPRESA-ERAKUNDE  
PUBLIKOETAN, MERKATARITZAKO FORU-SOZietATEETAN ETA FORU-  
FUNDAZIOETAN (AFATBEKO II. TITULUKO IV. KAPITULUKO I. ETA II. ATALAK  
GARATZEN DITU)**

**68. artikulua. Epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga merkataritzako foru-sozietateetan eta foru-fundazioetan.**

- 1 Aurrekontu Orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko foru-arauak zehaztuko du zein izango den merkataritzako foru-sozietateen eta foru-fundazioen epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga.
- 2 Muga horren barruan sartuko dira bai pasibo finantzarioak bai ibilgetua eskuratzearen ondoriozko hornitzaileak, baina ez dira inola ere sartuko ez epe luzera jasotako fidantza eta gordailuak, ez epe luzerako hornidurak.

**69. artikulua. Funtsen soberakinen kontabilitate-tratamendua.**

1. Enpresa-sektore publikoko erakundeentzako barne-transferentzietarako eskabideek Ogasun eta Finantza Sailean horretarako eskumena duen organoaren adostasuna behar dute.
2. Enpresa-sektore publikoko erakundeek Bizkaiko Foru Aldundiak emandako transferentzia korronteak eta kapital-transferentziak jaso badituzte eta, horren ondorioz, finantzaketa-soberakina izan badute ekitaldiren batean, Foru Aldundiaren aldeko pasibo korronte bat aitortu beharko dute ekitaldiaren amaieran, soberakin horren zenbatekoaren bestekoa.
3. Enpresa-sektore publikoko erakundeek transferentzia korronteak direla-eta izan litzaketen finantzaketa-soberakinak kalkulatzeko, galera-irabazien kontuaren edo emaitzen kontuaren emaitzari -kasu bakoitzean dagokionari- kendu edo gehitu egin beharko zaizkio sarrera edo gastu erreala islatzen ez duten kopuru guztiak, narriadurak, amortizazioak, hornidurak, etab., bai eta haien guztien aplikazioak ere.

**70. artikulua. Kanpoko zerbitzuetarako diren zuzkiduren aldaketa onartzeko eskumena .**

Ukitutako erakunde, sozietate edo fundazioa atxikita dagoen saileko foru-diputatu titularrari dagokio kanpoko zerbitzuetarako diren zuzkiduren aldaketa onartzea, baldin eta aldaketa horren zenbatekoa -bera bakarrik edo beste batzuekin batera- ez bada zuzkiduraren hasierako zenbatekoaren %5 baino handiagoa eta finantzaketa nahikoa badago.

**71. artikulua. Kanpoko zerbitzuetarako diren zuzkiduren aldaketa onartzeko prozeduraren berezitasunak.**

Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateginean zuzkidura mugatzaileen aldaketarako oro har ezartzen denaren kalterik gabe, aurreko artikuluan jasotzen diren zuzkidura-aldaketak egiteko eskaerak ekitaldi bakoitzeko abenduko lehenengo egunaren aurretik egin behar dira, eta onesprenak Ogasun eta Finantza Sailari jakinarazi behar zaizkio, .

**V. KAPITULUA.**  
**AURREKONTUA LUZATZEA (AFATBEKO II. TITULUKO. V. KAPITULUA GARATZEN DU).**

**72. artikulua. Aurrekontu luzatua onartzea.**

Ogasun eta Finantza Sailak, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategineko 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoarekin bat, sarrera-gastuen aurrekontu luzatuaren proiektua prestatuko du eta Foru Aldundiari bidaliko dio, hark onetsi dezan, aurrekontuok prestatzeko oinarri gisa erabilitako irizpide eta kasuak azaltzeko txosten batekin batera.

**VI. KAPITULUA.**  
**BATZAR NAGUSIENTZAKO INFORMAZIOA EMATEA (AFATBEKO II. TITULUKO VI. KAPITULUA GARATZEN DU).**

**73. artikulua. Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen diru-laguntzei, diru-laguntzen programen ebaluazioari eta diru-laguntzen plan estrategikoei buruzko informazioa.**

1. Bizkaiko Foru Aldundiko sailek eta foru-erakunde autonomoek, erakundeok atxikita dauden sailen bitartez, informazio hau bidali behar diote Ogasun eta Finantza Sailari:

- sei hilean behin, erreferentziako epea amaitu osteko lehenengo hilaren barruan:
  - salbuespen modura emandako zuzeneko diru-laguntzak. Diru-laguntzok arautzen dira, hain zuzen ere, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) artikuluan,.
  - emakidaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ez deneko diru-laguntzak.

Kategoria horretan sartuko dira, halaber, diru-laguntza izendunak eta 5/2005 Foru Arauko 20.2.b) artikuluan ezarritakoaren ondorioz emandakoak, baldin eta diru-laguntzon emakida ez bada Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

5/2005 Foru Arauko 2.2 artikulua aplikatuz, ez da informaziorik eman behar ez beste administrazio publiko batzuei egindako diru-ekarpenei buruz, ez edozein administrazioen menpe dauden erakunde publikoei egindako ekarpenei buruz, baldin eta ekarpenon helburua erakunde horien jarduna bere osotasunean finantzatzea bada, bakoitzari dagokion eskumenen eremuaren barruan.

- urtero, erreferentziako ekitaldiaren osteko ekitaldiko uztailako lehenengo egunaren aurretik:
  - diru-laguntzen plan estrategikoaren ebaluazioa, non gauzatutako diru-laguntzen programen ebaluazioa jasoko den, aztertzeko zer emaitza lortu diren, zer erabilgarritasun eta zer inpaktu sozial duten programa horiek eta aztertzeko ea egokia den programa horiek mantendu edo kentzea.

**74. artikulua. Foru-erakunde autonomoen aldian aldiko informazioa.**

Kasuan kasuko foru-erakunde autonomoa atxikita dagoen sailari jakinarazi behar zaio ea Ogasun eta Finantza Sailak erakunde autonomo horri buruzko informazioa ematen dien Batzar Nagusiei.

## **75. artikulua. Foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru-sozietateen eta foru-fundazioen tarteko informazio finantzarioa.**

1. Tarteko epea hau da: urte oso bat baino laburragoa den edozein kontabilitateko epe.

Ondorioz, tarteko informazio finantzarioa tarteko epe bati dagokion informazioa izango da.

2. Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuak sarbidea du zenbait erakunderen kontabilitateko informazio-sistamarako; bada, erakunde horiek erabilgarri eta behar bezala eguneratuta izan behar dute tarteko informazio finantzario guztia, eskatzen den informazioari dagokion epea amaitu osteko hilaren 16. eguna baino lehen.

Gainerako erakundeek Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari bidali behar diote informazioa, eskatzen den informazioari dagokion epea amaitu osteko hilaren 16. eguna baino lehen.

3. Merkataritzako foru-sozietateek eta foru-fundazioek Finantza Zerbitzuari bidali behar diote hiruhileko natural bakoitzaren amaieran dituzten zorpetze-eragiketen zor bizia. Eta informazio hori bidali behar dute, hain zuzen ere, eskatzen den informazioari dagokion epea amaitu osteko hilaren 16. eguna baino lehen.
4. Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuak, informazioa ematearren soilik, Batzar Nagusiei bidalitako tarteko informazioa helaraziko die foru enpresa-erakunde publikoak, merkataritzako foru-sozietateak eta foru-fundazioak atxikita dauden sailei.

## **II. TITULUA. KONTABILITATEA (AFATBEKO III. TITULUA GARATZEN DU)**

### **I. KAPITULUA. KONTABILITATE INFORMAZIOA (AFATBEKO III TITULUKO II. KAPITULUA GARATZEN DU)**

#### **76. artikulua. Kontu Orokorraren edukia.**

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak foru-sektore publikoaren kontabilitateari eta aurrekontuari buruzko informazio bateratua eta indibiduala jasotzen du.

#### **77. artikulua. Kontabilitateari eta aurrekontuari buruzko informazio bateratuaren edukia.**

Informazio bateratuan honako dokumentu hauek sartuko dira:

- a) foru-sektore publikoari buruzko txosten orokorra: txosten horren helburua da, besteak beste, aztertzea zein den kasu bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitateko araubidea eta zein den Kontu Orokorraren osaketa eta edukia nahiz emaitza bateratua, bai aurrekontukoa bai ondarekoa,
- b) kontu bateratuak:
  - aurrekontu bateratuaren likidazioa: foru-sektore publiko administratiboak aribideko ekitaldiko azken egunean duen gastuen aurrekontuaren eta sarreraren aurrekontuaren likidazioa jasoko du, bai eta aurrekontuko emaitza bateratua ere,
  - balantze bateratua: foru-sektore publikoak aribideko ekitaldiaren azken egunean duen ondare- eta finantza-egoera jasoko du,
  - ondarearen emaitza ekonomikoaren kontu bateratua: foru-sektore publikoak aribideko ekitaldian gauzatutako sarrera eta gastuak bilduko ditu, salbu eta sarrera-gastuok zuzenean ondare garbiari egotzi behar zaizkionean, Kontabilitate Publikoaren Foru Plan Orokorreko erregistro- eta balioespen-arauetan ezarritakoaren arabera.

Balantze bateratua eta ondarearen emaitza ekonomikoaren kontu bateratua ere aurre-aurreko ekitaldiari buruzkoak izango dira.

#### **78. artikulua. Batakuntza-irizpidea.**

Batakuntza egiteko, talde bateragarriak osatzen dituzten erakunde guztien eragiketa guztiak batuko dira, eta ezabatu egingo dira haietako bakoitzak besteekin dituen harremanak, arlo horretako araudian ezarritakoaren arabera.

#### **79. artikulua. Talde bateragarriak zedarritzatzea.**

1. Aurrekontu bateratuaren likidazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen aurrekontuei buruzkoa izango da.
2. Balantze bateratua nahiz ondarearen emaitza ekonomikoaren kontu bateratua Bizkaiko Foru Aldundiaren, foru-erakunde autonomoen, foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru-sozietateen eta foru-fundazioen kontabilitateko egoera-orriei buruzkoak izango dira.

#### **80. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiaren kontua.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren kontuak dokumentu hauek jasoko ditu, likidatzen den ekitaldiari buruzkoak:

- a) balantzea,
- b) ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua
- c) ondare garbian gertatu diren aldaketen egoera-orria
- d) eskudiruaren fluxuen egoera-orria,
- e) memoria,
- f) aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria.

Aurreko a) eta d) arteko letretan arautzen diren egoera-orri finantzarioak ere aurre-aurreko ekitaldiari buruzkoak izango dira.

#### **81. artikulua. Foru-erakunde autonomoen kontua.**

Foru-erakunde autonomo bakoitzaren kontuan Foru Aldundiarentzat ezarritako dokumentu berberak jasoko dira.

#### **82. artikulua. Sektore publiko administratiboko erakundeen kontuentzako informazio osagarria.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren kontuari nahiz erakunde autonomo bakoitzaren kontuei honako dokumentu hauek erantsiko zaizkie:

- a) diruzaintzako kontua: Bizkaiko Foru Aldundiaren edo foru-erakunde autonomoaren aurrekontuko zein aurrekontuz kanpoko eragiketengatik dauden fluxu monetarioek (kobrantzak eta ordainketak) aribideko ekitaldiko azken egunean duten egoera islatuko du kontu horrek, bai eta diruzaintza ez-erabilgarriaren egoera ere,
- b) etorkizuneko ekitaldien kargura hartutako konpromisoen laburpena: konpromisoak gauzatzeko aurreikusten diren ekitaldietan baimendutako eta erabilitako zenbatekoak jasoko ditu, sail edo erakunde autonomo bakoitzerako,

- c) sail edo foru-erakunde autonomo bakoitzaren memoria,
- d) gastu-programen ebaluazioari buruzko memoria, non berriaz aztertu behar den programa horiek zer inpaktu duten generoari dagokionez,
- e) diruzaintzako geldikina,
- f) Foru Aldundiaren edo foru-erakunde autonomoaren ondare-inbentarioa,
- g) Ogasun eta Finantza Sailak kontuak hobeto ulertzeko jaso beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio.

**83. artikulua. Foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru-sozietateen eta foru-fundazioen kontua.**

1. Foru enpresa-erakunde publiko, merkataritzako foru-sozietate eta foru-fundazio bakoitzaren kontua haren urteko kontuekin egingo da.
2. Ogasun eta Finantza Sailak enpresa-sektore publikoko erakundeen kontuak hobeto ulertzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio ere erantsi daiteke.

**84. artikulua. Foru-sektore publiko administratiboak Ogasun eta Finantza Sailari bidali beharreko dokumentazioa.**

Aldundiko sailek honako dokumentazio hau bidali behar diote Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari, bai sailei euri buruz bai haien menpeko foru-erakunde autonomo bakoitzari buruz:

- sail edo foru-erakunde autonomo bakoitzaren memoria,
- gastu-programen ebaluazioari buruzko memoria,
- Ogasun eta Finantza Sailak sektore publiko administratiboko erakundeen kontuak hobeto ulertzeko jaso beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio.

**85. artikulua. Foru enpresa-erakunde publikoek, merkataritzako foru-sozietateek eta foru-fundazioek Ogasun eta Finantza Sailari bidali beharreko dokumentazioa.**

Foru enpresa-erakunde publikoek, merkataritzako foru-sozietateek eta foru-fundazioek, haiek atxikita dauden foru-sailen bidez, honako dokumentazio hau bidali behar diote Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari:

- balantzea,
- galera-irabazien kontua eta emaitzen kontua, fundazioen kasuan,
- ondare garbian gertatu diren aldaketen egoera-orria, foru-fundazioen kasuan izan ezik,
- eskudiruaren fluxuen egoera-orria,
- memoria,
- kudeaketa-txostena; besteak beste, haiek jasoko ditu: negozioen bilakaerari eta erakunde edo sozietatearen egoerari buruzko azalpen fidela, bai eta erakunde edo sozietateak aurre egin behar dien arrisku eta ziurgabetasun nagusien deskripzioa ere (azken hori aukerakoa da foru-fundazioen kasuan),
- auditoretza-txostenaren kopia,

- aurrekontu-gauzatzeari eta legezkotasunari buruzko txostena: txosten horren helburua da zehaztea ea modu aski egokian bete den aurrekontuei, kontratazioari, diru-laguntzei eta zuzendaritzako kideen ordainsari-araubideari dagokienez aplikatu beharreko lege-araudia,
- iradokizun eta gomendioen txostenaren kopia: txosten horren helburua da zehaztea ea egokia den erakunde edo sozietatearen barne kontroleko sistema eta ea betetzen diren ala ez erakunde-sozietateak berak ezarritako prozedurak. Horretarako, txostenak deskribatuko du zer ahultasun, zer urritasun edo hobetu beharreko zer alderdi dauden, egungo egoerak dakartzan ondorioak adieraziko ditu eta egoera zuzentzeko gomendioak egingo ditu,
- foru enpresa-erakunde publikoek, merkataritzako foru-sozietateek eta foru-fundazioek kontuak beren artean berdinkatzeko txostenaren kopia, bai eta erakundeok beren kontuak Foru Aldundiarekin eta foru-erakunde autonomoekin berdinkatzeko txostenaren kopia ere.

#### **86. artikulua. Kontu Orokorra osatzeko bidali beharreko informazioa igortzeko epeak .**

Ogasun eta Finantza Sailari Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra osatzeko bidali behar zaion informazioa epe hauetan igorri behar da:

- a) aldundiko sailak: kasuan kasuko urteko martxoaren 1a baino lehen,
- b) kontabilitatearen kudeaketa deszentralizatua duten foru-erakunde autonomoak: informazioari dagokion urtearen hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen,
- c) foru enpresa-erakunde publikoak, merkataritzako foru-sozietateak eta foru-fundazioak: informazioari dagokion urtearen hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen.

#### **87. artikulua. Kontu Orokorraren izapidetzea eta onespina.**

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra Foru Aldundiak onetsiko du behin-behinean, Ogasun eta Finantza Sailak proposatuta, eta ekitaldi bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen bidali behar zaie kontu hori Bizkaiko Batzar Nagusiei, kontua aztertu eta, hala badagokio, onets dezaten.
2. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra behin-behinean onesteko erabakia Herri Kontuen Euskal Epaitegiari helarazi behar zaio, haren berri izan dezan eta dagozkion ondorioetarako.
3. Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, Batzar Nagusiek behin betiko onetsi ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, laburturik.

#### **88. artikulua. Aurreko ekitaldietako kontabilitateko informazioa.**

Foru enpresa-erakunde publikoen, merkataritzako foru-sozietateen eta foru-fundazioen urteko kontuak egiteko kontuan hartuko diren aurre-aurreko ekitaldiko zenbatekoak izango dira, hain zuzen ere, ekitaldi horri buruz ekitaldi horretako Kontu Orokorreko egoera-orri finantzarioetan jasota daudenak.

#### **89. artikulua. Urteko Kontuei edo Kudeaketa-txostenari buruzko desadostasunak edo eragozpenak.**

Erakundearen administrazio-kontseiluaren edo antzeko organo baten barruan desadostasunak edo eragozpenak badaude bidalitako urteko kontuei edo kudeaketa-txostenari buruz, berariaz jakinarazi behar dira desadostasun-eragozpenok.



#### **90. artikulua. Batzar nagusiaren eta patronatuaren erabakiak ziurtatzea.**

1. Merkataritzako foru-sozietateek, beranduen jota ekitaldi bakoitzeko maiatzeko lehenengo egunean, batzar nagusiak aurre-aurreko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena onartzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria bidali behar diote aurrekontuen arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiari, eta dokumentu horien eta administrazio-kontseiluak edo antzeko organoak prestatutako en artean egon litezkeen ezberdintasunak ere bidali behar dizkiote.

Foru-fundazioen kasuan, patronatuaren ziurtagiria bidali behar da.

2. Zuzendaritza nagusi horrek, salbuespen moduan eta kasu zehatzetan, aldatu egin ahal izango du aurreko zenbakian zehaztutako muga.

### **III. TITULUA.**

## **FORU-SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-ARABIDEA (AFATBEKO IV. TITULUA GARATZEN DU)**

#### **91. artikulua. Foru Diruzaintza.**

Foru Ogasunaren Diruzaintza Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen finantza-baliabideek osatzen dute, hots, diruak, baloreak edo kredituek -aurrekontuko eragiketek zein aurrekontukoak ez direnek eragindakoak-.

#### **92. artikulua. Foru-sektore publikoaren zorpetzea.**

Foru-sektore publikoaren zorpetzea hauen zorpetzeak osatuko du: sektore publiko administratiboa nahiz enpresa-sektore publikoa eratzen duten erakundeak.

### **I. KAPITULUA.**

## **FORU DIRUZAINZA (AFATBEKO IV. TITULUKO I. KAPITULUA GARATZEN DU).**

#### **93. artikulua. Finantza-plana.**

1. Ogasun eta Finantzen Foru Sailak, ordainketen denboraren arabera banaketa egokia nahiz zorpetze-beharrizanen zenbatespen zuzena lortzearren, finantza-plan bat onartuko du urtero, finantzaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatuta, eta plan horri egin behar zaio men ordainketa-aginduak ematerakoan. Finantza-planak kobrantzen inguruko aurreikuspena ere jasoko du.
2. Finantza-plana prestatzeko, finantzaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak bere iritziz finantza-plan horretan eragina izan dezaketen ordainketa eta kobrantzei buruzko datu, aurreikuspen eta dokumentazio guztiak eska diezazkioke foru-sektore publikoari.
3. Finantza-plana ekitaldian zehar aldatu ahal izango da, planaren gauzatzeari buruzko datuen arabera edo kobrantza eta ordainketen aurreikuspenen aldaketan arabera.

#### **94. artikulua. Finantza-planaren egitura.**

1. Kobrantzen eta ordainketen aurreikuspenak urteko finantza-planean sartuko dira, kobrantza-ordainketon ekitaldi ekonomikoa edozein dela ere eta kobrantza-ordainketok aurrekontukoak edo aurrekontuz kanpokoak direla ere, eta diruzaintzako desfaseak finantzatzeko modua ere jaso behar da plan horretan.
2. Kobrantza eta ordainketa horiek denboran zehar banatu behar dira, egutegi hauen arabera:
  - a) ordainketak: oro har, erabakiak hartzea errazteko, ordainketak egiteko egun zehatz batzuk ezartzen dira Bai neurri horren garapena, bai egutegi zehatzak ezartzeko erabili behar diren irizpideak arlo finantzarioan eskumena duen zuzendari nagusiaren ebaspen

batean jasoko dira, eta ebazpen hori urtarrileko lehenengo hamabostaldian onartu behar da, urtero.

- b) kobrantzak: haien araudi espezifikoa araberakoa. Horri dagokionez, tributuak ordaintzeko borondatezko epeko datei eragiten dien edozein aldaketa badago edo kontu mugatuak kontu arruntetara iraultzearen ondorioz aldaketak gertatzen badira funtsen erabilgarritasun-datan, bada, aldaketa horiek guztiak arlo finantzarioan eskumena duen zuzendaritza nagusiari jakinarazi behar zaizkio, eta jakinarazi egin behar zaizkio, halaber, kobrantzaren kudeaketan gerta litezkeen gorabehera guztiak, haien ondorioz atzerapenik gerta baliteke zenbait tributuren muga-eguneratzean.

#### **95. artikulua. Ordainketak agintzeko irizpideak.**

1. Oro har, une bakoitzean agintzen diren ordainketak finantza-planaren arabekoak izan behar dira.
2. Ordainketak agintzen dituenak irizpide objektiboak aplikatuko ditu ordainketa-aginduak ematerakoan, besteak beste, hauek: jasotze-data, eragiketaren zenbatekoa, aurrekontu-aplikazioa eta ordaintzeko modua.
3. Nahitaez jasota utzi behar da lehenetsuenak direla bai pertsonal-gastuak, bai aurreko ekitaldietako hartutako betebeharrak bai zorpetze foralaren ondoriozko finantza-kargak eragindako gastuak.

#### **96. artikulua. Ordainketarako batez besteko epea.**

Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratu egingo du zein den hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, eta zainduko du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen berankortasunari buruzko araudia bete dadila.

### **II. KAPITULUA.**

#### **SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOAREN ZORPETZEA (AFATBEKO IV. TITULUKO II. KAPITULUKO I., II. ETA III. ATALAK GARATZEN DITU)**

#### **97. artikulua. Izaera.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen zorpetze-eragiketak izaera publikoko baliabideak dira.

#### **98. artikulua. Zor forala.**

1. Zorpetzeari dagokionez, hau da zor forala: Bizkaiko Foru Aldundiak jaulkipen publikoaren bidez, kreditu-eragiketak itunduz edo hirugarren baten zor-posizioa subrogatuz maileguan hartutako kapital guztiak, edo, oro har, Bizkaiko Foru Aldundiaren zorrarekin zerikusia duen beste edozein finantza-eragiketa.
2. Zor foral bizia, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiak maileguan hartutako inoren kapital guztietatik itzultzeko dauden kapital guztien batura da.

#### **99. artikulua. Eremu objektiboa.**

1. Araudi honetan jasotzen diren baldintzetan mota guztietako zorpetze-eragiketak itundu ahal izango ditu Bizkaiko Foru Aldundiak, epe laburrean zein epe luzean, eta finantza-eragiketak egin ditzake, halaber, zorpetze-eragiketa horien arriskua edo kostua gutxitzeko edo dibertsifikatzeko, haien kolokazioa errazteko edo merkatuan duten posizioa defendatzeko; gainera, zorpetzearen kudeaketa finantzario egokirako beharrezkoak diren beste eragiketa guztiak ere egin ditzake.
2. Goiko paragrafoan aipatutako finantza-eragiketarako, hainbat produktu eratorriren erabilera generikoa egin ahal izango da; esaterako, honako produktu hauek erabili ahal

izango dira: finantza-trukaketak, aukerak, gerokoak, edo azpiko hainbat aktibotan oinarriturik dagoen beste edozein finantza-tresna, baldin eta aurreikusten diren aukeretarako ondoen egokitzen den finantza-kudeaketa burutzeko beharrezkoa bada.

3. Foru-erakunde autonomoek ezin izango dute epe luzerako zorpetze-eragiketarik itundu. Halako eragiketak baimentzeko araubideak araudi honetako 109. artikuluan ezarritakoa bete behar du.

#### **100. artikulua. Epe luzerako zorpetzea: helburua, tresnak eta muga.**

1. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere inbertsioak finantzatzeko nahiz aurretik dauden eragiketa guztiak edo haien zati bat ordezkatzeko, edozein motatako kreditu publiko zein pribatura jo ahal izango du, epe luzera.
2. Kreditua hauen bidez era daiteke:
  - a) zor publikoaren jaulkipena,
  - b) maileguen edo kreditu-lineen kontratazioa,
  - c) kreditu publiko edo pribatura jotzeko beste edozein modu.
3. Zorpetzea eurotan edo atzerriko monetan egon daiteke, eta ez dira atzerriko monetan egindakotzat joko Europako Diru Batasunean sartuta dauden herrialdeen lurralde-eremuaren barruan eurotan egiten diren ituntze- edo jaulkipen-eragiketak.
4. Epe luzera hartutako kapital guztiak sortutako zor foral biziak ezin du gainditu Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak ekitaldi bakoitzerako ezartzen duen gehieneko muga.

#### **101. artikulua. Epe luzerako mailegu-eragiketak edo kreditu-lineak ituntzea: araubide juridikoa eta eskumenak.**

1. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio epe luzerako mailegu-eragiketa edo kreditu-linea guztiak baimentzea.
2. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak erabaki-proposamena helaraziko dio Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari, eta, bertan, eragiketaren ezaugarri nagusiak deskribatuko dizkio.
3. Ogasun eta Finantzen foru diputatuari dagokio hartutako erabakia betearaztea, zorpetze-eragiketaren gainerako ezaugarriak zehaztea eta eragiketa horretako kontratua, poliza edo merkataritzako dokumentua itundu eta izenpetzea.

#### **102. artikulua. Foru Aldundiaren diruzaintzako eragiketak: helburua eta araubide juridikoa.**

1. Diruzaintzako beharrian iragankorrei erantzuteko, Bizkaiko Foru Aldundiak epe laburrerako kreditu-eragiketak itundu ahal izango ditu.
2. Ogasun eta Finantzen foru diputatuari dagokio diruzaintzako eragiketaren gainerako baldintzak zehaztea eta eragiketa horretako kontratua, poliza edo merkataritzako dokumentua izenpetzea.

#### **103. artikulua. Zor publikoaren jaulkipena.**

1. Zor publikoaren jaulkipena Foru Aldundiak erabakiko du, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta.
2. Jaulkipenerako erabakian zehaztuko dira hala eragiketaren gehieneko zenbatekoak nola eragiketa egiteko muga-eguna.

3. Ogasun eta Finantzen foru diputatuari dagokio jaulkipenaren gainerako ezaugarriak ezartzea, aurreko zenbakian aipatutako erabakian adierazten ez diren gainerako ezaugarriak, alegia.
4. Bizkaiko Foru Aldundiak jaulkitako zor publikoak eta izaera baliokideko titulu-baloreek Estatuaren Zor Publikoak dituen onura eta baldintza berberak izango dituzte.

#### **104. artikulua. Zor publikoaren erak.**

- 1 Foru Aldundiaren zor publikoa kontuko idatz-oharrez edo zor hori formalki aitortzen duen bestelako bide batez adierazi ahal izango da.
- 2 Zor publiko foralaren jaulkipenak Eusko Jaurlaritzarekin, foru-aldundiekin eta udalekin edo Autonomia Erkidegoko beste erakunde batzuekin batera burutzen diren jaulkipenen parte izan daitezke, finantza-merkatuetan baldintzarik onenak lortzearen.

#### **105. artikulua. Zor publikoaren preskripzioa.**

1. Bosgarren urtean preskribatuko du zor publiko foralaren interesak eta itzultzekoak diren kapitalak ordaindu beharrak; epe hori, hurrenez hurren, interesen muga-egunetik eta kapitalak itzultzeko deia egiten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Bihurketarako edo nahitaezko trukerako deia egiten denean, kapitalak itzuli beharrak hamargarren urtean preskribatuko du, eragiketarako ezarritako epearen azken egunetik aurrera zenbatzen hasita.
2. Baldin eta zor publiko foralaren ondoriozko betebeharrak hirugarren baten bidez ordaintzen badira eta 6 hilabete igaro ondoren hirugarren horrek ezin badizkie edukitzaileari edo titularrari ordaindu, zenbatekoa hirugarrenaren eskura jarriko da Foru Diruzaintzan, eta betiere artikulua honetako lehenengo zenbakian xedatutakoari eutsiko zaio.
3. Kode Zibilaren xedapenen arabera egiaztatuko da preskripzioaren etetea.
4. Zor publikoaren kapitalek hogeigarren urtean preskribatuko dute, kapitalon interesik jaso gabe; era berean, kapitalon titularrak ezin izango du Foru Ogasunaren aurrean interesak jasotzeko eskubiderik erabili.

### **III. KAPITULUA.**

#### **ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA (AFATBEKO IV. TITULUKO III. KAPITULUA GARATZEN DU)**

#### **106. artikulua. Eremu objektiboa.**

1. Araudi honetan jasotzen diren baldintzetan mota guztietako zorpetze-eragiketak itundu ahal izango dituzte foru merkataritza-sozietateek eta foru fundazioek, epe laburrean zein epe luzean, eta zorpetzeari eragiten dioten beste finantza-eragiketa berezi batzuk egin ditzake, halaber, zorpetze-eragiketa horien arriskua edo kostua gutxitzeko edo dibertsifikatzeko, haien kolokazioa errazteko edo merkatuan duten posizioa defendatzeko; gainera, zorpetzearen kudeaketa finantzario egokirako beharrezkoak diren beste eragiketa guztiak ere egin ditzake.
2. Goiko paragrafoan aipatutako finantza-eragiketarako, hainbat produktu eratorriren erabilera generikoa egin ahal izango da; esaterako, honako produktu hauek erabili ahal izango dira: finantza-trukaketak, aukerak, gerokoak, edo azpiko hainbat aktibotan oinarriturik dagoen beste edozein finantza-tresna, baldin eta aurreikusten diren aukeretak ondoen egokitzen den finantza-kudeaketa burutzeko beharrezkoa bada.
3. Foru erakunde-enpresa publikoek epe laburrerako kreditu-eragiketak bakarrik itundu ahal izango dituzte, diruzaintzako beharrian iragankorrei erantzuteko.

#### **107. artikulua. Epe luzerako zorpetzea: helburua, tresnak eta muga.**

1. Merkataritzako foru-sozietateek eta foru-fundazioek, beren kapital-aurrekontuak finantzatzeko nahiz aurretik dauden eragiketa guztiak edo haien zati bat ordezkatzeko, edozein motatako kreditu publiko zein pribatura jo ahal izango dute, epe luzera.
2. Zorpetzea hauen bidez egin daiteke:
  - a) jesapenak,
  - b) maileguen edo kreditu-lineen kontratazioa,
  - c) kreditu publiko edo pribatura jotzeko beste edozein modu.
3. Aurrekontu Orokorrei buruzko ekitaldi bakoitzeko foru-arauak zehaztuko du zein izango den zorpetze-eragiketetan sortutako epe luzerako zorren gehieneko zenbatekoa. Horretarako, epe luzerako zorraren bolumena hau izango da: maileguan hartutako kapitaletatik itzultzeko daudenen batura.

#### **108. artikulua. Diruzaintzako eragiketak.**

Diruzaintzako beharrizan iragankorrei erantzuteko, epe laburrerako kreditu-eragiketak itundu ahal izango dituzte foru erakunde-enpresa publikoek, foru merkataritza-sozietateek nahiz foru-fundazioek.

#### **109. artikulua. Baimenen araubidea.**

1. Enpresa-sektore publikoko erakundeek Ogasun eta Finantza Sailaren aurretiazko baimena behar dute 106. artikuluan aipatzen diren zorpetze- nahiz finantza-eragiketetako edozein ituntzeko.
2. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak finantza-arloan eskumena duen zuzendari nagusiari eskuorde diezaioke aurreko zenbakian aipatzen den baimena ematea.
3. Baimena ematen zaio finantza-arloan eskumena duen zuzendariari epe laburrerako zorpetze-eragiketak eta 15.000.000,00 euro baino gutxiagoko epe luzerako zorpetze-eragiketak ituntzea baimendu ahal izateko.

#### **110. artikulua. Baimena izapidetzea.**

1. Eskaera egin duen erakundeko organo eskudunak onartuko du 106. artikuluan aipatutako eragiketak egiteko beharrezana, bai eta eragiketaren ezaugarriak ere, eta baimena lortzeko hasierako eskabidea izapidetuko du, erakunde hori atxikita dagoen foru-sailaren bitartez. Eskabidearekin batera, eragiketa justifikatzen duen informazio guztia aurkeztu behar da.

Foru-sailak oniritzia eman ondoren, sailak berak izapidetuko du behin betiko eskabidea Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren aurrean.

2. Ogasun eta Finantzen Foru Sailak baimenduko du, hala badagokio, zorpetze- eragiketa edo finantza-eragiketa.

### **IV. KAPITULUA. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK EMANDAKO ABALAK (AFATBEKO IV. TITULUKO IV. KAPITULUA GARATZEN DU)**

#### **111. artikulua. Eremu objektiboa eta onuradunak.**

Foru Aldundiak bermatu egin ditzake honako onuradun hauekin epe luzera itundutako kreditu-eragiketen ondoriozko betebeharrak:

1. Foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza duten partzuergoak eta kapital sozialaren gehiena publikoa duten merkataritzako sozietateak.
3. Eta, salbuespen modura, beste edozein pertsona fisiko edo juridiko.

#### **112. artikulua. Muga kuantitatiboa eta organo eskuduna.**

1. Bizkaiko Foru Aldundiak bermetan gehienez baimendu dezakeen zenbatekoak ezin du gainditu Aurrekontuei buruzko Foru Arauak urtero ezartzen duen muga; eta, zenbatekoa gorabehera, onuraduna aurreko artikuluko 3. zenbakian aipatutako pertsona fisiko edo juridikoetako bat bada, baimena ematea Batzar Nagusiei dagokie.
2. Aurreko zenbakian aipatzen den muga gainditzen bada, baimena ematea Batzar Nagusiei dagokie.
3. Edozelan ere, emandako abal guztien multzoa -eskatutako abala barne- hiru milioi euro baino handiagoa bada, Batzar Nagusien berariazko erabakia beharko da horretarako, salbu eta abal multzo hori beharrezkoa bada ekitaldiko Aurrekontuei buruzko Foru Arauan merkataritzako foru-sozietateentzat eta foru-fundazioentzat jasotzen den zorpetzea formalizatzeko; izan ere, kasu horretan, horretarako baimena ematea Foru Aldundiari dagokio, baldin eta aurreko 1. zenbakian ezarritako muga gainditzen ez bada.

#### **113. artikulua. Bermea eratzea.**

1. Bermea abal baten bidez eratuko da, zeina izaera subsidiarioarekin egiletsiko den.
2. Abalen onuradunak foru-sektore publikoko erakundeak, kapital sozialaren gehiena publikoa duten merkataritza-sozietateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki- korporazioak direnean bakarrik erabaki daiteke Kode Zibilaren 1830. artikuluan ezarritako eskusio-onurari uko egitea.
3. Onuraduna 111. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoetako bat denean, berme errealak exijituko dira, baldin eta abalatuaren ondarean eskubideak edo bermeak badaude.

#### **114. artikulua. Bermea izapidetzea.**

1. Bermea emateko interesa duen foru-sailak hasiko du espedientea.
2. Espedientean hauek jasoko dira:
  - a) proiektuaren bideragarritasunari buruzko txostena eta kreditu-eragiketaren helburua,
  - b) bermatu nahi den kreditu-eragiketaren ezaugarriak,
  - c) onuradunaren egoera ekonomiko-finantzarioa,
  - d) beharrezkoa bada, onuradunak aurkezten dituen berme errealak.
3. Foru-sail interesdunak abala ematea proposatuko du, eta espedientea Ogasun eta Finantzen Foru Sailari helaraziko dio, hark nahitaezko txostena eman dezan.
4. Ogasun eta Finantza Sailaren txostenak hauek aztertuko ditu:
  - a) Abalatu nahi den kreditu-eragiketaren ezaugarriak.
  - b) Bermea emateak Bizkaiko Foru Aldundiari ekarriko lizkiokeen ondoreak,

- c) Onuradunak ez ordaintzeak Bizkaiko Foru Aldundiari ekarriko lizkiokeen ondoreak.
5. Ogasun eta Finantzen Foru Sailak espedientea eta nahitaezko txostena itzuliko dizkio bermea emateko interesa duen foru-sailari.
  6. Bermea emateko interesa duen foru-sailak ebazpen-proposamena egingo du, eta abala ematea eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari; bestela, hala badagokio, foru-arauaren proposamena egingo dio Aldundiari, azken horrek Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean izapidetu dezan arau-proposamen hori. Ebazpen- edo arau-proposamen horretan jasoko da, besteak beste, abalaren ezaugarri guztiak biltzen dituen testuak, eta bereziki aipatu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak uko egiten diela (hala egiten badu) berme-emaila gisa legezkiokkeen eskubideei.
  7. Abalatutako kreditu-kontratuaren berritzeak ez bazeuden aurrez ikusita, luzapenari edo edozein motatako aldaketa espresu zein isilbidezkori eragiten badiote eta eragina badute bermearen gainean, orduan -orain aldatu den- bermea eman zuen organoaren adostasuna beharko da kontratu hori berritzeko.
  8. Aurreko zenbakian aipatzen den adostasuna lortzeko, orain berritu den kontratuaren ondoriozko bermea lortzeko jarraitu ziren izapideak jarraitu behar dira.

#### **115. artikulua. Aldundiari itzulketa egiteko prozedura.**

1. Foru Aldundia izango da ordainketa-betebeharren erantzulea, bermea emateko interesa duen sailaren aurrekontuko kredituen kontura, baldin eta zordun nagusiak betebeharrak ordaintzen ez baditu.
2. Bermea emateko interesa duen foru-sailari dagokio Bizkaiko Foru Aldundiari beraren ondarean sor dakiokkeen kaltearen ordaina hartzeko egin beharreko ekintza guztiak egitea.

### **IV. TITULUA. KONTROLA (AFATBEKO V. TITULUA GARATZEN DU)**

#### **I. KAPITULUA. FISKALIZAZIOA (AFATBEKO V. TITULUKO II. KAPITULUA GARATZEN DU)**

##### **I. ATALA. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN AURREAN AURKEZTUTAKO FIDANTZAK ONARTU, ERREGISTRATU ETA ZAINZKEKO BALDINTZAK**

#### **116. artikulua. Aplikazio-eremua.**

Eratutako fidantza guztiak ondo kontabilizatu eta, ondoren, zaindu egin daitezela lortzearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean eraturako fidantza guztiei aplikatuko zaizkie atal honetako xedapenak, fidantza horiek bermatzen duten betebeharra edozein dela ere, baldin eta abala, kausio-asegurua, bahia, hipoteka, fidantza pertsonala, diruz eraturako fidantza, zor publikoko titulua edo nahikotzat jotzen den beste edozein erabiliz emandako fidantzak badira.

Halaber, atal honetan ezarritakoa aplikatuko zaie Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/1994 Foru Arauko 118. artikuluan aipatzen diren kuoten itzulketak onartu, erregistratu eta zainzkeko baldintzei.

#### **117. artikulua. Onarpena.**

Aurkezten diren fidantzak, kontabilizatu aurretik, fidantza bera eskatu duen edo eskumenaren arabera fidantza hori jaso behar duen foru-sail, zuzendaritza nagusi edo administrazio-unitateak aztertu behar du.

Diruz eraturako fidantzen kasuan, zuzenean Ogasun eta Finantza Sailean ordaindu behar dira, horretarako berriaz prestatutako ereduak ordainketa-gutun bat aurkeztuz, zeina behar bezala formalizatu behar duen aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera dagokion organoak.

### **118. artikulua. Askiestea.**

Fidantzak 117. artikuluan ezarritakoaren arabera onartu aurretik, foru-sail bakoitzean eskuduna den administrazio-unitateak askietsi egin behar ditu berak onartu beharreko fidantza guztiak. Horretarako, honako alderdi hauek hartu beharko ditu aintzat fidantza mota bakoitzerako:

#### **1. Abalak eta kuzio-aseguruak askiestea**

- a) abalaturako kopuruaren zenbatekoa, zeinaren barruan sartu behar den -halakorik badago- errekargu, interes eta prozesuko kostuei dagokien zatia, bai eta antzeko izaera duen eta kasu zehatz bakoitzean kontuan hartu beharreko beste edozein kontzeptu ere,
- b) abalaturako kontzeptua; behar bezala egiaztatu behar da abala edo kuzio-aseguru zehatz-mehatz datorrela bat bermatu nahi den xedearekin,
- c) abalak edo kuzio-aseguruak Administrazioaren aurrean aurkeztu beharreko eredu ofizialetan daudela; ereduak organo eskudunaren ebazpen bidez onartuko dira, Nolanahi ere, fidantza beharreko kontzeptuaren inguruabar espezifikoek hala eskatzen dutenean abalerako beste eredu batzuk erabili ahal izango dira, inguruabar zehatz horietara egokituak, baina ez da funtsezko alderik egon behar ereduon eta eredu onartuen artean,
- d) erakunde abal-emailearen izenean sinatzen dutenen ahalorde nahikoa,
- e) abalaren edo kuzio-aseguruaren baliozkotasuna egiaztatzeke beharrezkoa den beste edozein inguruabar,
- f) abala nahikoa dela egiaztatzeke, eginbide bat eman beharko da.

#### **2. Bahiak eta hipotekak askiestea**

- a) fidantzurako kopuruaren zenbatekoa, zeinaren barruan sartu behar den -halakorik badago- errekargu, interes eta prozesuko kostuei dagokien zatia, bai eta antzeko izaera duen eta kasu zehatz bakoitzean kontuan hartu beharreko beste edozein kontzeptu ere,
- b) fidantzurako kontzeptua; behar bezala egiaztatu behar da bahia edo hipoteka zehatz-mehatz datorrela bat bermatu nahi den xedearekin,
- c) bahia edo hipoteka eratzeko eskritura bera dagokion betebeharra bermatzeko egokia ote den aztertzea eta egiaztatzea,
- d) kasu honetan eta alde juridikotik izan lezakeen zailtasunari berezia aintzat hartuta, Lehendakariak Foru Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena eskatu ahal izango da,
- e) bahiaren edo hipotekaren baliozkotasuna egiaztatzeke beharrezkoa den beste edozein inguruabar,
- f) edozelan ere, askietsitako bahiaren edo hipotekaren egokitasuna eta nahikotasuna egiaztatu behar da, txosten baten bidez edo eginbide baten bidez.

#### **3. Fidantza pertsonalak askiestea**

- a) fidantzurako kopuruaren zenbatekoa, zeinaren barruan sartu behar den -halakorik badago- errekargu, interes eta prozesuko kostuei dagokien zatia, bai eta antzeko izaera duen eta kasu zehatz bakoitzean kontuan hartu beharreko beste edozein kontzeptu ere,



- b) fidantzatutako kontzeptua; behar bezala egiaztatu behar da fidantza pertsonala zehatz-mehatz datorrela bat bermatu nahi den xedearekin,
  - c) fidantza pertsonala bera dagokion betebeharra bermatzeko egokia dela aztertzea eta egiaztatzea,
  - d) fidantza pertsonalaren baliozkotasuna egiaztatzeko beharrezkoa den beste edozein inguruabar.
4. Zor Publikoko tituluen bidez eratutako fidantzak askiestea .

Fidantzak Zor Publikoko tituluen bidez eratzeko, baloreek gordailatuta dauden banku- edo aurrezki-erakundeak horretarako emandako ziurtagiri bat aurkeztu behar da, non hauek jaso behar diren: Foru Aldundiaren alde pignoraturako tituluen zenbatekoa, izaera eta gainerako ezaugarriak, bermatzen duten betebeharra, bermearen iraunaldia eta interesekotzat jotzen diren beste inguruabar guztiak.

Zor Publikoko tituluen bidez eratutako fidantzak askiesteko alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- a) fidantzatutako kopuruaren zenbatekoa, zeinaren barruan sartu behar den -halakorik badago- errekargu, interes eta prozesuko kostuei dagokien zatia, bai eta antzeko izaera duen eta kasu zehatz bakoitzean kontuan hartu beharreko beste edozein kontzeptu ere,
- b) fidantzatutako kontzeptua; behar bezala egiaztatu behar da erakunde laguntzaileak edo aurrezki-erakundeak horretarako emandako ziurtagiria guztiz bat datorrela bermatu nahi den balizkoarekin eta, bestalde, nahikoa dela betebeharra bermatzeko,
- c) aurreko b) letran aipaturako ziurtagiria banku- edo aurrezki-erakundearen izenean sinatzen dutenen ahalorde nahikoa,
- d) bermea nahikoa dela egiaztatzeko, eginbide bat eman beharko da.

#### **119. artikulua. Fiskalizazioa, kontabilizazioa eta zaintza.**

Sailak, zuzendaritza nagusiak edo administrazio-unitateak -kasu bakoitzean dagokionak- fidantza askietsi eta onartu ondoren, fidantza hori Fiskalizazio Zerbitzuari helarazi beharko zaio, non egiaztatuko den ea aurkeztutako bermeek bete egiten dituzten ofizialki onartutako eredu-tako baldintzak eta alderdi formalak. Beteko ez balituzte, itzuli egin ahal izango dira, zuzentzeko.

Egin beharreko egiaztapenak egin ondoren, kontabilizatu egingo dira, eta zerbitzu horrek, ofizioz, Ogasun eta Finantza Saileko Diruzaintza Zerbitzuari bidaliko dizkio, zaindu ditzan.

#### **120. artikulua. Kontrola gastua betearazteko prozeduretako izapideetan.**

Prozedura ondo bete eta bertan sor litezkeen akatsak detektatu ahal izateko, Fiskalizazio Zerbitzuak, obrak, hornidurak, zerbitzuen prestazioak edo beste edozein kontratu mota adjudikatu aurretik, egiaztatuko du ea benetan eratu eta kontabilizatu den kasu bakoitzean eratu beharreko fidantza.

Egiaztapen bera egingo da bai kontratu bat aldatu eta haren aurrekontua gehitzen denean, bai material, ekipamendu edo instalazioak biltzeagatik konturako ordainketak egiten direnean, bai eta kontratuaren aurrekontuan izandako gehikuntzek fidantza bat eratzearagiten duten kasu guztietan ere.

Adjudikatu aurretik fidantzak eratzearagiten behar duten diru-laguntzen kasuan ere egiaztapen bera egingo da.

Kasu bakoitzean eratu beharreko fidantza eraten eta kontabilizatzen ez bada, espedientearen izapidetzea hasi zuen administrazio-unitateari itzuliko zaio espediente hori.

#### **121. artikulua. Fidantza itzultzea.**

Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuan gordailutatako fidantzak itzuli ahal izateko, fidantza horiek kontabilizatzeko bidali zituen administrazio-unitate, zuzendaritza nagusi edo sailak komunikazio bat helaraziko beharko dio Fiskalizazio Zerbitzuari, non agindu behar duen fidantza hori askatu eta interesdunari itzul dakiola, baldin eta fidantza formalizatzea eragin zuen betebeharra bete bada; bete ez bada, berriz, fidantza hori bahitu eta organo eskudunaren eskura jartzeko aginduko du, organo horrek fidantza betearaz dezan.

Gordailutatako fidantzak itzultzeko prozesua ondo bete eta fidantzok argi eta garbi identifikatu daitezten, Fiskalizazio Zerbitzuari bidaltzen zaion komunikazioan jaso behar dira fidantzaren identifikazio-datu guztiak zein haren hasierako erregistroaren ondoren kontsignatutako guztiak. Gainera, fidantza askatzea, edo bahitzea eta betearazpena arrazoitzeko administrazio-ebazpena ere gehitu behar zaio komunikazioari.

Organo eskudunak fidantza itzultzeko agindua eman ondoren, Fiskalizazio Zerbitzuak haren irteera kontabilizatu eta ofizioz bidaliko dio Diruzaintza Zerbitzuari, izapidetzea amaitzeko.

### **II. KAPITULUA.**

#### **KONTROL EKONOMIKOA (AFATBEKO V. TITULUKO. IV. KAPITULUA GARATZEN DU).**

#### **122. artikulua. Kontrol ekonomikoaren menpeko arau-xedapenak.**

Foru-arauen aurreproiektuak eta Foru Aldundiaren foru-dekretu arauemaileen, Foru Aldundiaren foru-dekretuen eta Ahaldu Nagusiaren foru-dekretuen proiektuak kontrol ekonomikoaren menpe egongo dira, araudi honetan ezarritako baldintzetan, baldin eta aurreproiektu-proiektuok eduki ekonomikoa badute.

Halaber, kontrol ekonomikoa aplikatuko zaie Aldundiaren Gobernu Kontseiluari onarpena eman diezaien aurkezten zaizkion administrazio-ebazpenen proposamenei, baldin eta ebazpenok eduki ekonomikoa badute.

#### **123. artikulua. Salbuespenezko aplikazioa.**

Kontrol ekonomikoa foru-aginduei ere aplikatu ahal izango zaie, salbuespenez, baldin eta kontrol hori aplikatzea egokitzat jotzen bada aginduotan arautzen den gaiagatik, gai horrek duen garrantzi bereziagatik edo justifikatutako beste inguruabar batzuegatik.

#### **124. artikulua. Kontroletik kanpo geratzen diren arau-xedapenak.**

1. Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bateginean ezarritakoaren arabera, kontrol ekonomikotik kanpo geratzen dira zergetan eragina duten xedapen arautzaileak eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorrak eta kontu orokorrak onesteko diren xedapenak.
2. Halaber, eduki ekonomikorik ez dutenez, honako arau-xedapen hauen proiektuak ez dira jarriko kapitulu honetan araututako kontrolaren menpe:
  - a) Foru Aldundiaren foru-dekretuen artetik honako hauek arautzen dituztenak:
    - zuzendari nagusien izendapen eta kargu-uzteak,
    - batzorde eskuordeen antolaketa eta funtzionamendua,
    - sariak eta ohoreak nahiz horrelakoak ematea,

- b) Ahdun Nagusiaren foru-dekretuen artetik honako hauek arautzen dituztenak:
  - egun baliogabeen gaineko adierazpena,
  - Ahdun Nagusiaren ordezkapena,
  - foru-diputatuen izendapen, ordezkapen eta kargu-uzteak.
- 3. Era berean, kuantifikazio ekonomikorik egin ezin zaien arau-xedapen guztiak ere kontroletik kanpo geratuko dira.

#### **125. artikulua. Eduki ekonomikoa.**

Kontrol ekonomikoko txostenak egiteko eskumena erabiltzen duen Ogasun eta Finantza Saileko organoari dagokio eduki ekonomikorik dagoen zehaztea.

#### **126. artikulua. Eragin ekonomikoa.**

1. Eragin ekonomikoaren analisisian haztatu egin beharko da arau-xedapena indarrean jartzeak edo hitzarmena gauzatzeak zer ondorio izan ditzakeen aldagai ekonomikoetan, esaterako, produktu eta zerbitzuen prezioetan edo enpleguan.
2. Era berean, merkatuan izan litzakeen ondorioak ere hartuko dira kontuan, adibidez, lehia mugatzeari, sektorearen egitura aldatzeari, eta abarri dagokionez izan litzakeenak.

#### **127. artikulua. Eragina aurrekontuan.**

1. Arau-xedapen batek aurrekontuan izan dezakeen eragina ebaluatu aurretik, faktore esanguratsu hauek identifikatuko dira:
  - a) sor litezkeen gastuen izaera eta zenbatekoa.

Berriaz adierazi behar da ea xedapena indarrean jartzeak edo hitzarmena betearazteak pertsonal-kosturik edo kostu informatiko osagarriak eragiten duen edo ez. Kosturik eragingo balu, kostuok zenbatetsi egin beharko lirateke, eta, pertsonalaren kasuan, adierazi beharko litzateke lanbide-kategoria bakoitzeko zenbat langile hartu beharko litzatekeen,
  - b) sortu litezkeen sarreraren izaera eta zenbatekoa,
  - c) proposatutako finantzaketa-iturrien izaera eta zenbatekoa.
2. Arau-xedapenak edo hitzarmenak aurrekontuan duen eragina begiratzekoan kontuan hartu behar da bai aribideko ekitaldian duen eragina, bai etorkizunekoetan izango duena.
3. Aztertuko da zer ondorio izan litzaketan helburu, adierazle eta ekintzetan, baita generoari eta gazteriari lotutakoetan ere.
4. Aurrekontuaren gaineko eraginak aztertu behar du zer ondore gerta daitezkeen aplikatu beharreko kontabilitate- eta ondare-araubideetan.

#### **128. artikulua. Eragin finantzarioa.**

Proposatutako xedapen edo ebazpenaren finantza-bideragarritasuna aztertuko da.

#### **129. artikulua. Diru-laguntzen programen eta haien deialdien berezitasunak.**

Diru-laguntzen programak eta haien deialdiak arautzen dituzten xedapenen kasuan, halakoek duten eragin ekonomikoa eta aurrekontuaren gaineko eragina aztertzerakoan bakarrik aztertuko

da diru-laguntzen plan estrategikoetan dagoeneko emandako informazioari dagokionez egin beharrekotzat jotzen diren aldaketa edo eguneratzeek izango luketen eragina.

### **130. artikulua. Arau-xedapenak edo hitzarmenak proposatzen dituzten foru-sailek aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

1. Araudi honetako 122-123. artikuluetan aipatzen diren arau-xedapen orokorrak edo administrazio-ebazpenak proposatzen dituzten foru-sailek dokumentazio hau bidali behar diote Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari:
  - a) proiektu edo proposamenen kopia,
  - b) memoria bat; bertan, proposamena edo proiektua justifikatzen duten arrazoiak bildu behar dira, identifikatu behar da proposamen edo proiektu hori zer talde edo pertsonari zuzentzen zaien, azaldu behar da zer beste soluzio egon litekeen, eta aurreko 126-128. artikuluetan aipatzen den eragin ekonomikoa, aurrekontuaren gaineko eragina nahiz eragin finantzarioa analizatzeko beste gai guztiak ere jaso behar dira.
2. Aurreko zenbakian adierazitako dokumentazioa Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuari bidali behar zaio, gutxienez ere Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren gai-zerrendan sartzeko aurreikusitako eguna baino 7 egun lehenago.
3. Txostenak egiteko eskumena duten zerbitzuek beharrekotzat jotzen duten beste edozein informazio osagarri eska diezaiokeite proiektua edo proposamena bideratzen duen sailari.

### **131. artikulua. Txostenak egitea.**

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, kontrol ekonomikoki buruzko txostena egingo da, eta haren bidez egiaztatuko da ea proiektu edo proposamenak prestatu dituzten foru-sailek kontuan hartu dituzten araudi honetako 126-128. artikuluetan zehazten diren alderdiak.

### **132. artikulua. Kontrol ekonomikoko txostenen izaera.**

Hona hemen txostenak izan ditzakeen emaitzak: aldekoa, kontrakoa, aldekoa gomendioekin edo salbuespenekin, aurkakoa eragozpenekin, eta aurkakoa espedientearen izapidetzea etetea dakarrela.

Aldekoa izango da, aurkeztutako dokumentazioari erreparatuta, ez bada aurkitzen arrazoirik, ikuspuntu ekonomikotik, aurrekontutik edo finantzariotik, proposatutako arau-xedapena, hitzarmena edo agindua onesteko edo aplikatzeko.

Aldeko txostenak gomendioak edo salbuespenak jaso ditzake. Salbuespenak adieraziko dira, baldin eta hauteman bada proposatutako arau-xedapenaren, hitzarmenaren edo aginduaren punturen batean zuzendu beharreko kontuak daudela.

Txostena aurkakoa izango da baldin eta ezin bada eragina baloratu, dokumentaziorik edo informaziorik ez dagoelako edo ez delako egokia Bizkaiko Foru Aldundian finantza, ekonomia edo aurrekontu arloan duen eragina.

Azkenik, aurkako txostena ematen bada ez dagoelako proposatutako finantzaketa, edo hura ez delako egokia, edo irizten delako xedapenak galerak eragin diezazkiokeela Foru Ogasunari, espedientearen izapidetzea etengo da desadostasuna konpondu arte. Espediente honen ebazpena indarrean dagoen aurrekontuei buruzko araudian ezarritakoarekin bat etorritik emango da.

### **133. artikulua. Kontrol ekonomikoko txostenen jakinarazpena.**

Txosten horiek behar bezala jakinarazi behar zaizkio arau-xedapena edo hitzarmena proposatu duen foru-sailari.

**III. KAPITULUA.**  
**AUDITORETZA (AFATBEKO VI. TITULUKO. V. KAPITULUA GARATZEN DU)**

**I. ATALA.**  
**XEDEA, HEDADURA, APLIKAZIO-EREMUA ETA ESKUMENA. (AFATBEKO VI. TITULUKO V. KAPITULUKO 146. ETA 147. ARTIKULUAK GARATZEN DITU).**

**134. artikulua. Hedadura.**

Auditoretza-prozesuen bidez egindako kontrolaren helburua hau da:

- a) foru sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-kudeaketa sektore hori osatzen duten erakunde, zerbitzu eta unitateen ekonomia- eta finantza-jokabidea arautzen duten xedapen eta ildoetara egokitzen direla egiaztatzea, baita legezketasun, eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren printzipioekin bat datozela egiaztatzea ere,
- b) enpresa-sektore publiko forala osatzen duten erakundeen kontabilitateak eta ekonomiari eta finantzei buruzko informazioak -finantzei, ondareari eta aurrekontuei dagokienez- erakundeon benetako egoera adierazten dutela eta aplikatzekoak diren xedapen eta printzipioekin bat datozela egiaztatzea,
- c) pertsona onuradunei zein erakunde laguntzaileei dagokienez, diru-laguntzen finantza kontrola egitea, aplikatzekoa den araudiaren arabera,
- d) aurretiazko fiskalizazioa behar ez duten espedienteen kontrola egitea,
- e) indarrean dagoen araudiak Foru Aldundiko barne kontroleko organoei eratzikitako eginkizun guztiak gauzatzeko, eginkizun horiek burutzeko alde aurretik auditoretza-prozedurak egin behar badira,
- f) kudeaketan laguntzeko jarduketak egitea.
- g) txostenen emaitzen jarraipena egitea, hala badagokio.

**135. artikulua. Jarduketa-eremua.**

Auditoretza-prozesuen bidez hauek kontrolatuko dira:

- a) sektore publiko administratiboa: Foru Aldundia eta foru-erakunde autonomoak,
- b) enpresa-sektore publikoa: foru enpresa-erakunde publikoak, merkataritzako foru-sozietateak eta foru-fundazioak,
- c) Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridikoa arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan adierazitakoaren arabera Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura diru-laguntzak edo laguntzak jasotzen dituzten erakunde eta enpresa publiko edo pribatuak zein pertsona fisikoak,
- d) inguruabar berezi eta justifikatuak direla-eta Bizkaiko Foru Aldundiak zehazten duen beste edozein erakunde.

**136. artikulua. Eskumena.**

Ogasun eta Finantza Sailari dagokio auditoretza-prozeduren bidezko kontrola egitea.

**II. ATALA.**  
**URTEKO AUDITORETZA-PLANA (AFATBEKO VI. TITULUKO. V. KAPITULUKO 148.**  
**ARTIKULUA GARATZEN DU)**

**137. artikulua. Urteko auditoretza-planaren edukia.**

Urteko auditoretza-plana Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategineko 148. artikuluan jasotzen da, eta plana indarrean dagoen epean egingo diren kontrol-jarduerak biltzen ditu.

**138. artikulua. Urteko auditoretza-planerako proposamena prestatzea.**

Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrolerako Zuzendariordeztzari dagokio urteko auditoretza-planerako proposamena prestatzea, eta, bertan, honako hauetatik datozen jarduerak ere jaso ahal izango dira:

- a) foru-sektore publikoak aurkeztutako eskabideak; indarrean dagoen araudiak hala aginduta eta aukera, koherentzia, eraginkortasun eta lanaren hedaturari lotutako irizpideak aintzat hartuta egindakoak izan behar dira,
- b) Auditoria Zerbitzuaren ekimenez, kontrol-jarduerak abiaraztea gomendatzen duten egoera edo inguruabarrak aintzat hartuta.

Beste jarduketa horiek planean sartuko diren aztertzeko, horretarako eskabideak Auditoria Zerbitzuari helarazi behar zaizkio, planaren erreferentziako ekitaldiaren aurreko ekitaldiko abenduko lehen egunaren aurretik.

**139. artikulua. Urteko auditoretza-plana onestea.**

Urteko auditoretza-plana Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onetsiko du, plana bera aplikatu behar den ekitaldia hasi aurretik, eta diputatuak Foru Aldundiari jakinaraziko dio, azken horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei helarazi eta planaren berri izan dezaten.

**140. artikulua. Urteko auditoretza-plana aldatzea.**

Foru-sektore publikoaren urteko auditoretza-planaren aldaketak behar bezala justifikatuta egon behar dira, eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onetsi behar ditu.

**141. artikulua. Urteko auditoretza-plana betearazteko epea.**

Urteko auditoretza-plana betearazteko epea planaren erreferentziazko ekitaldiaren urtarilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa da.

**III. ATALA.**  
**KONTROLA EGITEKO JARDUKETAK (AFATBEKO VI. TITULUKO. V. KAPITULUKO 149.**  
**ARTIKULUA GARATZEN DU).**

**142. artikulua. Kontrol-modalitateak.**

Auditoretza-prozeduren bitartez egindako kontrolak bat etorri behar du Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiak Auditoria Zerbitzuari emandako eginkizunekin, eta, beraz, Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategineko 147. artikuluan deskribatutako modalitateak hartuko ditu.

**143. artikulua. Jarduketan hasiera.**

1. Urteko auditoretza-planean jasotako kontrol-jarduketak auditoretza-zerbitzuak egingo duen jakinarazpen baten bidez hasiko dira, aldez aurretik Aurrekontuetarako eta Kontrolerako Zuzendariordeztzari horren berri eman zaiola. Jakinarazpen hori zuzenduko zaio, hain zuzen ere, kontrolatzen den erakundearen edo gaiaren titularra edo arduraduna den pertsonari, diru-laguntza edo laguntza jasotzen duen pertsonari (halakorik badago) eta kontrolaren

xede den erakunde edo gaia dela-eta eskumen espezifikokoak -funtzionalak edo organikoak-dituen foru-sailari.

2. Jakinarazpenean adieraziko da auditoretza hasi dela eta urteko auditoretza-planean jaso dela, eta zehaztuko da zer kontrol-modalitate egingo den eta kontrolak zer hedadura izango duen. Halaber, kontrol-jarduketak betearazten hasteko beharrezkotzat jotzen den informazioa edo dokumentazioa eskatu ahal izango da.

#### **144. artikulua. Kontrol-jarduketak betearaztea.**

1. Auditoria Zerbitzuak, bere lana ondo betetzeko, beharrezko duen informazioa eskatu ahal izango du eta beharrezkoak diren egiaztatze materialak egin ahal izango ditu. Auditoreek, beren lana betetzerakoan, mugarik gabeko sarbidea izango dute auditatzen den erakunde, zerbitzu edo sistemaren artxibo eta erregistroetara, barruko zein kanpokoetara.
2. Auditoretza-lanak zuzenean Auditoria Zerbitzuko langileek egingo dituzte, baina Bizkaiko Foru Aldundiaz kanpoko balia bideak ere kontrata daitezke lan horiek betetzeko.

Kanpo-auditoreen lanari berrikusketako eta kalitate-kontrolako prozesuak ezarri dakizkioke, eta auditoreok behartuta daude haiek emandako txostenen euskarri den informazio guztia Auditoria Zerbitzuaren eskura jartzeko.

3. Foru-sektore publikoko erakundeen gaineko kontrol-jarduketak homogeneizatzearren, auditoretza-zerbitzuak eskatutako informazioa, dokumentazioa eta auditoretza- txostenak betearazteko eta aurkezteko irizpideak ezarri ahal izango ditu.

#### **145. artikulua. Erregistroak, laneko paperak eta jarduketak artxibatzea.**

1. Auditoretza-lanen barruan egindako jarduketak nahiz lortutako ebidentziak lan-paperetan edo erregistroetan islatuko dira.
2. Kontrola egin bitartean prestatu eta lortutako lan-paperen eta/edo erregistroen artxibo osoa eta zehatza eratu behar da, zeina oinarri izango den lortutako konklusioetarako.
3. Kontrol-lanak auditoretzako kanpo-erakundeei kontratatzen bazaizkie, erakundeek egindako lanaren oinarri diren lan-paperen eta/edo erregistroen eta haietan azaldutako konklusioen kopia eskatu ahal izango die Auditoria Zerbitzuak kanpo-auditoreoi.
4. Lan-paperak eta/edo erregistroak konfidentzialak dira eta ematen zaizkien helburuetarako bakarrik erabil daitezke, eta, beharrezkoa bada, arau-hauste izan litezkeen egitateen dokumentu-euskarri moduan ere bai.
5. Kontrol-txostenaren euskarri diren kontrol-paperak eta/edo erregistroak gutxienez sei urtean gorde behar dira, txosten hori ematen den egunetik aurrera zenbatuta.

### **IV. ATALA.**

#### **AUDITORETZA-TXOSTENAK (AFATBEKO VI. TITULUKO V. KAPITULUKO 150. ETA 151. ARTIKULUAK GARATZEN DITU).**

#### **146. artikulua. Lanen konklusioak.**

Kontrol-jarduketan emaitzak auditoretza-txostenetan islatuko dira. Esfortzuak ez biderkatzearen, Auditoria Zerbitzuak gainerako kontrol-organoei edo kanpoko auditoreei egindako txostenak erabili ahal izango ditu eta, behar denean, erantsi eta bere egin ahal izango ditu, iturria aipatuta.

#### **147. artikulua. Txostenen sailkapena.**

1. Txostenak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira, prozedurako fasearen arabera.

2. Behin-behineko txostenak izango dira egindako lanetik ondorioztatzen diren emaitzak jasotzen dituztenak. Behin-behineko txostena kontrolatzen den erakunde, zerbitzu edo jardueraren arduradunari helaraziko zaio, egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.
3. Behin betiko txostenak, berriz, behin-behinekoa oinarri hartuta emandakoak izango dira, hurrengo artikuluan zehazten denaren arabera alegazioak aztertu ondoren.

#### **148. artikulua. Behin-behineko txostenari egindako alegazioak.**

1. Alegazioak, behar bezala arrazoitu eta dokumentatuta, 15 egun naturaleko epean aurkeztu behar dira, behin-behineko txostena jasotzen denetik zenbatuta.
2. Alegazioak kontrolatzen den kudeaketaren arduradun zuzenak berretsi behar ditu.
3. Kontrolatzen den egitatea foru-sektore publikoari dagokionean, alegazioetan, aurrekoaz gainera, aztertzen den gaia dela-eta eskumena duen zuzendari nagusiaren adostasuna ere erantsi behar da.
4. Aurkeztutako alegazioak Auditoria Zerbitzuak aztertuko ditu, eta, horretarako, honela jardungo du:
  - a) alegazioak onartzen badira, aldatu egin beharko da, ondorioz, behin-behineko txostena,
  - b) alegazioak onartzen ez badira, eta txostenean jasotako alderdiei bakarrik badagozkie, alegazio horiek txostenari erantsiko zaizkio, eta, egokitzen jotzen bada, haiei buruzko iritzi labur eta zehatza jaso ahal izango da bertan,
  - c) adierazitako epe horretan alegaziorik jasotzen ez bada, inguruabar horren berri jasoko da eta behin-behineko txostena behin betiko bihurtuko da.

#### **149. artikulua. Txostenetako konklusioen eta emaitzen jarraipena.**

Detektatzen diren gabeziak (akatsak, ez-betetzeak eta ez-adostasunak) zuzentzen direla eta txostenetan azaltzen diren gomendioak martxan jartzen direla bermatzearen, Auditoria Zerbitzuak jarduketaren plan bat prestatzeko eska diezaiotke gabeziok zuzentzeko ardura duen personari, eta, bertan, horretarako behar diren ekintzak eta ekintzok ezartzeko epeak zehaztu beharko dira.

#### **150. artikulua. Auditoretza-txostenen egitura eta edukia.**

1. Urteko kontuen eta beste finantza-egoera edo kontabilitate-agiri batzuen auditoretza-txostenak aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparruan ezarritakoari egokituko zaizkio. Berrikusketa mugatuaren txostenak, berrikusketa- eta egiaztapen-txostenak eta hitzarturiko prozeduren txostenak, berriz, zuzenbide publikoko auditoretza-korporazioek proposatutako gidei edo hurrengo puntuan proposatutako egiturari egokitu ahal izango zaizkio.
2. Gainerako txostenak, kontrola auditoretza-prozeduren bidez egitearen ondoriozkoak, honako atal eta eduki hauei egokituko zaizkie, lanaren modalitatearen arabera:
  - a) Sarrera: Bertan, adieraziko da nori dagokion kontrola egiteko eskumena, txostena zer auditoretza-planetan oinarritzen den, txostena nork eskatzen duen eta lana zer arauri jarraituz egin den.
  - b) Ohar orokorrak: Atal honetan aipatuko da, bereziki, zein den erakundearen edo jarduketaren eremuaren jardura, zer antolaketa-egitura duen eta zer den aplikatzeko araudi nagusia.
  - c) Lanaren helburua eta hedadura: Helburu generikoa nahiz helburu zehatzak islatu behar dira, bai eta lanaren hedadura ere: eremuak, epeak, prozedurak... Azalduko da,



halaber, hedadura horrek zer muga izan dituen eta muga horiek zer eragin izan duten kontroleko helburuak betetzeari dagokionez. Mugarik ez badago, hala adierazi behar da.

- d) Danaren emaitzak: Kontrol-jarduketetatik eratorritako ahultasunak, gabeziak, okerrak eta ez-betetzeak adieraziko dira; horiek aplikatutako auditoretza-prozeduren ondorioz egiaztatutako ebidentziak izango dituzte oinarri.
- e) Konklusioak: Lanaren emaitzetan oinarrituta aterako dira, eta, hala egin behar denean, kontrol-organoaren iritzia jasoko da.
- f) Gomendioak: Lanaren emaitzak ikusita, haietan nabarmendu diren puntu ahulak edo gabeziak zuzentzeko har daitezkeen neurriak proposatu ahal izango dira.
- g) Txostenen hartzaileak eta txostenak erabiltzea: Zehaztu behar da zer organo eta erakunde diren txostenen hartzaileak: beren eskumenen barruan bakarrik erabili ahal izango dituzte txostenok, eta haiek ondo erabili eta zaintzeaz arduratuko dira.
- h) Txostenari egindako alegazioak: Txostenen atal honetan erakundeak edo zerbitzuak agerian utzitako alegazioak jasoko dira, bai eta kontrol-organoak alegazio horiek direla-eta egiten dituen oharrak ere.

Alegazioak aurkezteko epearen barruan ez bada alegaziorik aurkeztu, egoera hori jasota utzi behar da.

- i) Eranskinak: Txostenetan, aurrekoaz gainera, haiek ulertzeko garrantzitsutzat jotzen den beste edozer informazio ere jaso ahal izango da,
- j) Txostenaren data eta sinadura.

### **151. artikulua. Txostenak banatzea.**

Behin betiko txostenak hauei bidaliko zaizkie:

- a) Ogasun eta Finantzen foru diputatuari,
- b) gaia dela-eta auditatu den saileko foru-diputatuari, txostenak sail horren egitura organikoaren barruko zerbitzuei badagozkie,
- c) foru-erakunde autonomoetako, foru enpresa-erakunde publikoetako, merkataritzako foru-sozietateetako eta foru-fundazioetako zuzendari edo presidenteei, bai eta aurreko horiek atxikita dauden saileko foru-diputatuari ere, txostenak haien jarduketei badagozkie,
- d) diru-laguntza edo laguntza publikoen pertsona onuradunei eta, hala badagokio, erakunde laguntzaileei, bai eta diru-laguntza edo laguntza ematen duen saileko foru-diputatuari ere.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak txostena hartzaile gehiagori edo gutxiagori bidaltzea erabaki dezake, beharrezkotzat jotzen badu.

### **152. artikulua. Kontrol-aktak.**

1. Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategineko 151. artikuluan ezarritakoaren arabera, auditoretza bidezko kontrola egiten denean foru-sektore publikoari kalte eta galerak eragin dizkieten edo eragin ahal dizkieten irregulartasunak sumatzen badira, kontrol-aktak egingo dira, baina aktak egiteak ez du ekarriko martxan dagoen kontrola geldiarazterik edo geldieran uzterik.
2. Kontrol-aktetan hauek jasoko dira:
  - a) egitateen deskripzioa,

- b) egintza sorrarazlearen kalifikazioa eta zer arau hautsi den, araurik hautsi bada,
  - c) ustezko irregulartasuna zeini esleitu behar zaion,
  - d) kalte ekonomikoak daudela ikusten bada, haien kuantifikazioa.
3. Akta berean ustezko irregulartasun bat baino gehiago jaso daiteke, baldin eta irregulartasun horiek guztiak balizko berari badagozkie. Horrekin batera, eranskin moduan eta zerrrenda batean behar bezala jasota, beharrezkotzat jo litezkeen dokumentazio eta aurrekariaren kopia eman behar da.
  4. Akta zabaldua -hots, dokumentazioa eta aurrekariak ere badituena- Ogasun eta Finantzen foru diputatuari bidali behar zaio, haren berri izan dezan, eta kontrolatu den organo edo erakundeko arduradun edo titularrari ere bai. Azken horrek, 7 eguneko epean, adierazi beharko du ea bat datorren ala ez aktan jasotzen diren ustezko irregulartasunekin, eta zehaztaperen hauek ere egin beharko ditu:
    - a) aktan jasotako irregulartasunak onartzen baditu, hartu dituen edo hartuko dituen neurri zuzentzaileak ere jakinarazi behar ditu,
    - b) irregulartasun horiekin ados ez badago, horri buruz egin beharreko oharra adieraziko ditu.
  5. Aurreko 4. zenbakian adierazitako epea amaitu ondoren edo jakinarazpena jaso ondoren ere oraindik ere gertatzen badira akta eragin zuten arrazoiak, bada, orduan, akta hori -eta jasotako erantzuna- organo eskudunei helaraziko zaie egin beharreko jarduketak has ditzaten; orobat jakinarazi behar zaio akta hori Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, haren berri izan dezan.

### **153. artikulua. Diligentziak diru-laguntzen finantza-kontrollean.**

2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 45. artikuluan adierazitakoaren arabera, diru-laguntzen finantza-kontrola egiterakoan agerian uzten badira edo diru-laguntzak itzultzeko espedientea hasteko beharra edo beste egitate garrantzitsu batzuk, horiek guztiak diligentzietan islatuko dira, eta haietan adieraziko dira aurreko horiek guztiak eragiten dituzten inguruabarrak, aurrekariak eta identifikazio-datuak, bai eta itzuli beharreko zenbatekoa zein espedientea argitzeke balio dezakeen beste edozein informazio ere.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

### **Bakarra.**

Kontrol ekonomikoa -araudi honetako IV. tituluko II. kapituluan arautua- 122. artikuluko lehenengo paragrafoan aipatzen diren arau-xedapenak ematen direnean hasiko da, foru-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

Artikulu horretako bigarren paragrafoan aipatzen diren administrazio-ebazpenen proposamenen gaineko kontrol ekonomikoa aplikatzeko egutegia foru-dekretu honetako lehenengo xedapen azkenean jasotako gaikuntzaren arabera gauzatuko da.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenengoa. Bizkaiko Foru Aldundiko organoek desjabetze-espedienteen ondoriozko gastuak onesteko dituzten eskumen-mugak, zenbatekoa dela eta.**

Honako hauei dagokie desjabetze-espedienteen ondoriozko gastuak onestea:

- Foru Aldundiari, espedienteen zenbatekoa 2.000.000 eurotik gorakoa bada,

- Ahdun Nagusiar, espedienteen zenbatekoa 2.000.000 euro edo gutxiago bada,
- foru-diputatu, espedienteen zenbatekoa 1.000.000 euro edo gutxiago bada.

**Bigarrena. Bizkaiko Foru Aldundiko organoek diru-laguntzak edo laguntzak emateko dituzten eskumen-mugak, zenbatekoa dela eta.**

Honako hauei dagokie diru-laguntzak edo laguntzak ematea, helburu horretarako aurretiaz aurrekontuko diru-izendapena egonda eta indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betez:

- Ahdun Nagusiar, diru-laguntza edo laguntzen zenbatekoa 320.000 euro edo gutxiago bada,
- foru-diputatu, diru-laguntza edo laguntzen zenbatekoa 15.000 euro edo gutxiago bada.

**Hirugarrena. Bizkaiko Foru Aldundiko organoek kontratuak egiteko dituzten eskumen-mugak, zenbatekoa dela eta.**

Honako hauei dagokie kontratuak egiteko baimena ematea, helburu horretarako aurretiaz aurrekontuko diru-izendapena egonda eta legeetan ezarritako baldintzak betez:

- Foru Aldundiari, kontratuen zenbatekoa 3.000.000 eurotik gorakoa bada,
- Ahdun Nagusiar, kontratuen zenbatekoa 3.000.000 euro edo gutxiago bada,
- foru-diputatu, kontratuen zenbatekoa 2.000.000 euro edo gutxiago bada.

**Laugarrena. Foru-partzuergoei eta zuzenbide publikoko beste foru-entitate batzuei aplikatu beharreko araubidea.**

Foru-sektore publiko administratiboaren parte diren foru-partzuergoei eta zuzenbide publikoko beste foru-entitate batzuei araudi honetan foru-erakunde autonomoentzat ezarritako guztia aplikatuko zaie, hala dagokion guztietan.

Enpresa-sektore publiko foralaren parte diren foru-partzuergoei eta zuzenbide publikoko beste foru-entitate batzuei, berriz, araudi honetan merkataritzako foru-sozietateentzat ezarritako guztia aplikatuko zaie, hala dagokion guztietan.

**Bosgarrena. Informazioa kanpora bidaltzea.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren edo foru-sektore publikoa osatzen duten entitateetako edozeinen kudeaketari buruzko informazioa kanpora bidaltzen denean, baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari kasu bakoitzerako beharrezkoak diren baliokidetasunak eta formatuak ezartzeko.

**Seigarrena. Bizkaiko Foru Aldundiko organoek Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketan onoriozko gastuak onesteko dituzten eskumen-mugak, zenbatekoa dela eta.**

Honako hauei dagokie gastuak baimentzea, helburu horretarako aurretiaz aurrekontuko diru-izendapena badago, indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen badira eta xedapen espezifikoetan ezarritakoaren kalterik gabe:

- Foru Aldundiari, gastuaren zenbatekoa 3.000.000 eurotik gorakoa bada.
- Ahdun Nagusiar, gastuaren zenbatekoa 3.000.000 euro edo gutxiago bada.
- foru-diputatu, gastuaren zenbatekoa 2.000.000 euro edo gutxiago bada.

